



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

2019ko azaroa

---

**PRAKTIKA LINGUISTIKOAK  
ETA HARREMANAK  
ERAKUNDEEN ETA  
HEDABIDEEN ARTEAN**  
***Jendaurrean Erabili***

---

2018-2019 ikerketa lerroa



**Txostenaren egileak:** Beatriz Zabalondo eta Asier Basurto

**Ikerketa taldea:**

- Beatriz Zabalondo (EHU)
- Eduardo Apodaka (EHU)
- Idurre Eskisabel (EHU)
- Irati Agirreazkuenaga (EHU)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

*Jendaurrean Erabili proiektua Soziolinguistika Klusterra eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzan garatzen da eta Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa jaso du.*

*Lan hau Creative Commons Aitortu-Partekatu-Berdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>*

## AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>2</b>	<b>ABIABURUKOA</b> .....	<b>4</b>
2.1	Nondik norakoak .....	4
2.2	Proiektuaren helburuak.....	5
<b>3</b>	<b>AKTOREAK ETA FAKTOREAK KOMUNIKAZIO PUBLIKOAN</b> .....	<b>6</b>
3.1	Erakundeen komunikatzeko eta gizartean nabarmentzeko beharra .....	7
3.2	Teknologiaren garapena.....	7
3.3	Komunikazio zuzendariaren figuraren ugaritzea .....	8
3.4	Hizkuntzen erabileraren garapena. ....	8
<b>4</b>	<b>HEDABIDEEN JARDUNA: AUDIENTZIAK</b> .....	<b>13</b>
4.1	Prentsa .....	14
4.2	Irratia .....	16
4.3	Telebista.....	16
<b>5</b>	<b>IKERKETA METODOLOGIA</b> .....	<b>21</b>
5.1	Praktika Komunitateko partaideekin eztabaida taldeak .....	21
5.2	Hedabideetako ordezkariekin Elkarrizketa sakonak.....	23
<b>6</b>	<b>EMAITZAK</b> .....	<b>25</b>
6.1	Erakundeen ikuspegia.....	25
	ERAKUNDEEK ESANDAKOA laburtze aldera.....	32
6.2	Hedabideen ikuspegia .....	34
	HEDABIDEEK ESANDAKOA laburtze aldera .....	62
<b>7</b>	<b>ONDORIOAK</b> .....	<b>64</b>
7.1	Ahalduntzea eta aritzea .....	66
<b>8</b>	<b>AURRERA BEGIRA</b> .....	<b>68</b>
<b>9</b>	<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>69</b>
<b>10</b>	<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>70</b>
	I.Eranskina: eztabaida taldeak egiteko gida.....	70

## 1 SARRERA

Soziolinguistika Klusterrak eta UPV/EHUK elkarlanean abiatutako *Jendaurrean Erabili* proiektuaren bigarren fasearen berri ematen da txosten honetan. *Jendaurrean Erabili* proiektua 2015ean sortu zen, komunikazio publikoaren alorrean egunerokoan diharduten eragileen egitekoa babesteko eta sustatzeko: parte hartzen duten kideek elkarrengandik ikasteko bide gisa hartu behar da eta, ikerketan oinarritutako proiektua den heinean, baita jakintza eraikitzeke bidetzat ere.

Proiektuaren lehen fasean, proiektua bera definitu zen lehenik, eta 2016an eta 2017ko lehen erdian, Praktika Komunitatea (aurrerantzean, PK) sortu zen eta formazio saioak eskaini zitzaizkien erakunde<sup>1</sup> parte hartzaileei; orobat, erakundeek komunikazio publikoan dituzten bizipenei erreparatu zitzairen, bereziki hizkuntza-praktikei dagokienez. Praktika komunitatearen metodologiak berak, parte hartzaile bakoitzaren komunikazio estrategiak gauzatzeko zenbaterainoko baliagarritasuna duen aztertu zen.

Bigarren fase honetan, 2017ko hondarretik hasita, formazio saioekin jarraitu da, baina aurreko fasean ez bezala, komunikazio publikoan erakundeek eta hedabideek hizkuntzak kudeatzeko dituzten beharrak eta gabeziak aztertzeke jomuga ezarri da. Hori izan da ikerketa taldearen egiteko nagusia aldi honetan.

Hain zuzen, lan horren berri jasotzen da txosten honetan. Abiaturuko atalean, lehenik, proiektuaren testuingurua, zergatiak eta helburuak azaltzen dira. Ondoren, komunikazio publikoan parte hartzen duten aktore eta faktoreei buruzko zertzelada batzuk eman dira: erakundeek komunikatzeko beharra, teknologiaren garapena, komunikazio zuzendarien rola eta euskararen erabilera-gaitasunak. Hedabideen sistemari begiratu zaio ondoren, *Jendaurrean Erabiliko* partaideek beren komunikazio publikoan non aritzen diren kokatzeko eta gogoratzeko. Hala, erakundeek eta hedabideek komunikazio publikoan duten harremanaren testuingurua eman nahi izan da.

Ikerketaren metodologia zehazten da hurrengo: erakundeekin, eztabaida-taldeak egin dira, eta hedabideekin, elkarriketa sakonak. Emaitzen atalean gaika bildu dira nola erakundeek hala hedabideek egindako ekarpenak, gero ondorioetan kontrastatu direnak. Aurrera begirako labur bat ere eskaini da txostenaren amaieran.

---

<sup>1</sup> Lan honetan, eta besterik zehazten ez bada, erakunde hitza baliatzen dugunean, enpresa publikoak, pribatuak, herri ekimenekoak eta, oro har, jardun publikorako beharra dutenean hedabideekin harremanetan jartzen diren elkarte eta kolektibitate oro hartuko dugu kontuan, eta batik bat gure PK osatzen dutenak.

## 2 ABIABURUKOA

### 2.1 NONDIK NORAKOAK

*Jendaurrean Erabili* PK-ko erakunde parte hartzaileak gizarteko erakunde ezagun eta komunikatiboki aktiboak diren heinean, edukiak eta mezuak trukatzeko dituzte euren publikoekin, etengabe harremanean egon ohi dira, dela bitarteko propioen bidez, dela hedabide tradizional handien bidez. Hedabideekin gauzatzen duten bitartekotza horretan, esatekoa dutena partekatu ez ezik beren izaera ere erakusten dute, herritarrekin kohesio-indarrak ehuntzen dituzte eta kultura eraikitzen hartzen dute parte. Eta lan hori, bi aldeek —erakundeek eta hedabideek— bi norantzetan gauzatzen den negoziazioaren fruitu da, elkar elikatzen duten konfiantzaren bidez mamitzen baita.

Oro har, gizarteko eragileek —gure PK-ko erakundeak barne— gero eta premia handiagoa dute komunikazioaren espazioan beren lekua hartzeko: gizartean nor izango badira eta irudi ona zabalduko badute, jakin egin behar baita izan badirela eta zertan ari diren. Izan ere, gure PK-ko erakundeak beren publikoengandik gertu egon nahiko dute, eta, beraz, ezin dute hedabideen jardunari bizkarra emanda bizi.

Hain zuzen, *Jendaurrean Erabili Proiektua*-n (2017) definitu zen bigarren ekite ildoaz ari gara, esan nahi baita: helburua da interpelazioaren bidez lankidetzara lortzea hedabideekin:

---

*“Ekite-ildo honen helburua hedabideak interpelatzea da, alegia, ekimen hauetan solaskide eta erantzukide direla ohartaraztea eta lankide bihurtzea. Hasiera batean, pentsatu zen lehen bi ekite-ildoak batera egiterik izango genuela, baina ekinak erakutsi zigun ezetz. Horrenbestez, aukera ikusten denean jarriko da martxan, eta interpelaziotik lankidetzara pasatzea izango da xedea. Izan ere, interpelazio kontzeptutik planteatzen bada ere, eta hura parte honen helburu nagusia bada ere, hedabideetako iritzia, ikuspegiak eta jarrerak jasotzea eta ezagutzea dira ildo honen eginkizunak. Lankidetzara izango da abiapuntua eta azken helburua: hasierako lankidetzara diagnostikoa egitekoa, azkenekoa egoera eraldatzekoa” (15. or.).*

---

Hiru ideia nagusi bereiziko ditugu goiko aipuan, ikerketa honen muinean daudenak, hain zuzen: bat, hedabideak interpelatzearena: horrek esan nahi du hedabideengana jotzea, haiekin hitz egin eta haiengandik erantzun bat jasotzea; erakundeak hedabideetara jotzen dutenean euren komunikazioa bideratzeko, erakundeak eurak ez ezik hedabideak ere partaide eta erantzule dira. Horri lotuta dator bigarren ideia: hedabideak lankide bihurtzearena. Interpelazioaren bitartez, erakundeek bezala hedabideek ere zer behar eta nahi duten jakin beharko genuke; haien iritzi eta jarrerak ezagututa, hedabideak eta erakundeak elkar hurbiltzeko ahalegina egitea baita kontua, eta azken-azken batean, ikerketa honen helburuetara biltzea erakundeen jendaurreko komunikazio beharretatik harago: euskarazko komunikazio publikoa areagotzea, horretarako, beharrezkoa balitz, zenbait hedabide bere ‘konfort gunetik’, bere ohiko praktiketatik mugiaraziz. Bide horretan,

komunikazio eremuaren hizkuntza ohituren diagnostikoa egituratzeko aukera izango da. Lankidetzaren bitartez eskuratutako diagnostikoak aurrera begira jartzea ahalbidetuko digu, hots, pronostikoa egitea. Horixe da hirugarren ideia nagusia: diagnostiko-pronostikoa lantzea; eta horrekin, *Jendurrean Erabili* proiektuak abiaburutik bere buruari ezarritako helburuari berrekitea: hedabideekin lankidetzan, komunikazio eremua euskalduntzeko urratsak egiten hastea.

## **2.2 PROIEKTUAREN HELBURUAK**

Goian esandakoa laburbilduz, beraz, lan honek bi xede nagusi izan ditu egingai:

- a) Erakundeen eta hedabideen arteko harremanak nola gertatzen diren marraztea.
- b) Hizkuntzen kudeaketa hedabideetan nola gertatzen den ulertzea.


### 3 AKTOREAK ETA FAKTOREAK KOMUNIKAZIO PUBLIKOAN

Komunikazio publikoaren esparruan hainbat protagonista bereizi ohi dira: nagusiki, hedabideak eta erakundeak. Bien arteko harremana ez da beti era berean gertatzen, eta ez da beti zuzeneko (bitartekariak ere izan ohi dira tartean).

*Jendurrean Erabili* jardunari lotuta, erakunde-hedabideen arteko komunikazio trukeetan hainbat funtzio bereizi ohi dira: batetik, biak ala biak dira igorle-hartzaile, eta, bestetik, hedabideak erakundeen komunikazio kanala dira. Kanpo-komunikazioari lotutako behar batzuk —apika, nagusiak— bideratzeko, hedabide tradizionalak (prentsa, irratia, telebista) gain, erakundeek beren bitarteko propioak (sare sozialak...) baliatu ohi dituzte.

Edozein delarik kanala, gure eremuan, komunikaziorako aukeratuko den hizkuntzak ekintzaren bideragarritasuna baldintzatuko du. Erakundeek beti dituzte beren hartzaileak kontuan, komunikazioari ekiten diotenean; besteak beste, haien hizkuntza ohiturak baita haien hizkuntza identitatea ere. Gure testuinguru soziolinguistikoa, hedabideen hizkuntza ohiturak ere nahitaez dira kontuan hartu beharrekoak.

Esan berri dugun hori guztia, eskema honetan laburbildu daiteke:



#### *1.Irudia: Komunikazio publikoaren eskema. Autoreak atondua.*

Azken urteetan eraldaketa nabarmena izan da komunikazio publikoaren esparruan. Lau agente edo faktorek izan dute zeresana. Atalka landuko ditugu faktore horiek, bakoitzari dagokion begirada eskaini eta, soiltasunak gidatuta, errazago ulertu eta interpretatzeko haren eragina, baina kontuan izanda errealitatean gauzak ez direla hain soil eta ez direla 'zatika' gertatu.

### **3.1 ERAKUNDEEN KOMUNIKATZEKO ETA GIZARTEAN NABARMENTZEKO BEHARRA**

Komunikazioa ezinbestekoa da erakundeetan, egiten duten jarduera egiten dutela. Kontua ez da produktu on bat garatu eta hura komunikazioaren bitartez jakitera ematea, edo, hizkera informalean esango genukeen bezala, gero produktua 'saltzea'. Erakundeetan komunikazioa hori baino askoz gehiago da, estrategiaren muina da, eta ezinbestekoa da ondo garatu eta funtzionatuko badute.

Besteak beste, komunikazioari esker, erakundeak lehiakorrak dira eta inguruan gertatzen diren aldaketetara egokitzen dira, beren helburuak betetzeko bidean. Beste alde batetik, komunikazio eraginkorrak langileen motibazioan eragiten du, eta erakundeko egitekoetan haien konpromiso eta inplikazioa areagotzen.

Aro digitalean sartuta, komunikazioak are eta garrantzi handiagoa hartu du, kanal sozialek lehen baino elkarrekintza askoz azkarragoak ahalbidetu dituzte eta. Hala, erakundeek euren publikoengana iristeko ahalegin gero eta handiagoa egiten dute elkarrenganako konfiantza eta interesa abiatu eta sustatzeko, edo, gutxienez, euren artean konfiantza eza eta errezelo girorik sor ez dadin (Aced, 2013).

Giza komunikazioaren zailtasunetako bat komunikatzaileek mezuei emozio, sentipen edo bizipenik eransten ez diotenean suertatu ohi da (Quesada, 2014). Komunikatzaileek hautatzen duten hizkuntzak badu zerikusirik komunikazioaren emozio-dosi horrekin. Hizkuntza minorizatueta hiltunek komunikazio kideekin enpatizatzeko eta identifikatzeko joera dute hizkuntza gutxitua erabiltzen dutenean euren jardunean (barneko zein kanpoko publikoen aurrean).

Ez da garrantzirik gabea erakundeek euskara erabiltzea euren publikoekin komunikatzeko: hautapen horretan, publikoengana gerturatzeko ariketa horretan, jokaera eredugarria duten kontzientzia hartu behar dute erakundeek, gizartean sortzen duten irudi eta eraginagatik.

### **3.2 TEKNOLOGIAREN GARAPENA.**

Erakundeek ez ezik gizarte osoak ere garapen teknologiko izugarria ezagutu du azken urteetan (2000. urtetik hona esango dugu). Digitalizazioarekin hasi zen aldaketa, eta gailu berriak sortu eta daudenak bizkortu eta merkatzearen ondotik etorri da batik bat eraldaketa. Izan ere, komunikatzeko gailuak eta moduak ia 'edonoren' eskura daudenez egun, komunikazioaren 'kontrola' eta boterea desplazatu egin da: hedabideek ez dute komunikazio publikoaren kontrol absolutua, eta, nahitaez, beste eragile batzuekin 'negoziatzera' behartuta daude (behartuta ikusi dute beren burua).

Hala eta guztiz ere, hedabideen jarduerak berebiziko garrantzia du oraindik komunikazio publikoaren esparruan. Eta oso kontuan hartzekoak dira horko inertziak eta dinamikak.



### **3.3 KOMUNIKAZIO ZUZENDARIAREN FIGURAREN UGARITZEA.**

Erakunde handi eta txikiek gero eta baliabide gehiago eskaintzen diote komunikazioari — bakoitzak bere ahalmenen neurrian, bistan da —besteak beste 3.1. puntuaz azaldutako arrazoiengatik. Baliabideen artean, jakina, gailu eta berritasun teknologikoak aipatu behar dira: ordenagailu-parketik hasi, informazioa kudeatzeko abiadura handiko sareetatik jarraitu eta publikoei eskaintzen dieten euskarri eta formatu berriak ahaztu gabe (informazioa jasotzeko eta harreman zuzenak bideratzeko aplikazioak, kasu).

Baina baliabide teknologikoez gain, ezin da ahaztu erakundeek komunikazioa kudeatzeko sortu dituzten lanpostuak. Erakunde handiek, baliabide gehiago dituztenez, lanpostu gehiago eta espezializatuagoak dituzte, egunetik egunera gehiago eta hobeak. Erakunde txikietan ez da aukerarik izaten askotan, baina ez premiarik ikusten ez delako.

Marketinaren eta publizitatearen munduan Komunikazio-zuzendariaren figura izan da (KOMZUZ, euskaraz; DIRCOM, gaztelaniaz) erakundearen komunikazio lanak bideratu dituena. Politikaren arloan, ere existitu da figura hori: prentsa-burua, komunikazio-burua, komunikazio-aholkularia... hainbat izenez ezagutu izan da.

Pertsona bakanak ez ezik, komunikazio-bulego edo -kabineteak ere badira eginkizun horretan dihardutenak. Gurera ere, berandu, baina iritsi da figura hori. Erakunde handiek badituzte beren komunikazio-arduradunak etxe barruan, baina ez da ezohikoa kanpoko bulegoak kontratatzea eginkizun jakinetarako. Berrito ere esan behar da erakunde txikietan, 'ahal' dutena egiten dutela eta neurtuago ibiltzen direla.

### **3.4 HIZKUNTZEN ERABILERAREN GARAPENA.**

Gizakiak bere espeziekideekin pentsamenduak, sentimenduak, emozioak eta gurariak partekatzeko beharra du. Hizkuntzarik gabe, eduki konplexuak komunikatzeko gaitasuna oso murriztua izango luke; halaber, hizkuntza soilik baliatuta ere zail da komunikazio beharrak asetzea. Edozelan ere, esan dezakegu hizkuntza dela komunikazio tresna nagusia.

Gure gizartean, hizkuntzen mapa asko aldatu da azken urteotan. Begi bistakoa da kanpotik etorritako pertsonen eta hemen hartu dutenek bizilekua berekin ekarri dutela hizkuntza, kultura, ohitura berriak. Duela 25 urte ez bezala, azken 10 urteetan, oso nabarmena da hizkuntza asko hitz egiten den herrialdean bizi garela: kanpotik bizitzera etorritakoek ekarri digute hizkuntz aberastasun hori.

Lehendik, baina, baziren hiru hizkuntza gurean: euskara, gaztelania eta frantsesa (nagusiki hitz eginda). Euskara, nagusiki, beste bietakoren batekin kontaktuan bizi izan da; euskararen eta gaztelania/frantsesaren egoera soziala ez da parekidea izan. Gutxiagotutako egoeran bizi izan da eta da. Hala islatu ohi da hedabideen esparruan: Euskal Herriko komunikazio-

sistema —komunikazio-sistematik baldin badugu— desorekatua da hizkuntzen aldetik, nagusiki erdalduna izan da eta da.

Jakina denez, espainola eta frantsesa izan dira eta dira hizkuntza nagusiak gure lurraldean, bakoitza Bidasoaren alde banatan. Hori esanda, euskararen egoera eta bilakaera aldatuz joan da azken 35-40 urteetan. Egoera soziolinguistikoa ez da bat eta bera izan, ez denboran eta ez geografian<sup>2</sup>. Labur esanda, ia 200.000 euskaldun gehiago daude egun, duela 25 urte baino. Eta, batez ere, gazteen artean gertatu da gorakada —eskolak euskaldundutako ikasleei esker.

Euskararen Adierazle Sistemak (EAS) hizkuntzaren egoera sozialaren berri ematen dituen datuak biltzen ditu. Beheko irudietan ikusgai jarri ditugu batzuk: euskararen gaitasunari buruzkoak, euskaraz hitz egiteko erraztasuna erakusten dutenak eta lankideekin erabili ohi den hizkuntzarenak. Grafiko banatan atondu ditugu datuok:


---

<sup>2</sup> VI Inkesta Soziolinguistikoan (2016) ageri den euskaldun kopuruaren eboluzioa ikusi besterik ez dago: 1991n 528.000 euskaldun ziren (Euskal Herriko populazioaren %22,3) eta 2016an 721.500 euskaldun (Euskal Herriko populazioaren %28,4).

## Hizkuntza-gaitasuna

Euskara-gaitasunari<sup>3</sup> dagokionez, honako hiztun-motak bereizten dira grafikoan:

- Euskalduna (elebiduna): euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea): Ez du euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
  - Euskaraz "zertxobait" ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
  - Euskara "ondo" edo "nahiko ondo" ulertzen du.



### 2.Irudia: Euskararen Adierazle Sistema. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Grafikoak erakusten duenez, biztanleen euskara-gaitasuna asko hobetu da azken 25 urteotan, baina oraindik erdiak baino gehiagok gaztelaniaz gaitasun handiagoa du euskaraz baino.


<sup>3</sup> Euskararen Adierazle Sistema: Hemendik hartua:

[http://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px2\\_e.px/table/tableViewLayout1?rxid=686eb84e-70b5-4ece-aafb-1388f4bc5d65](http://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px2_e.px/table/tableViewLayout1?rxid=686eb84e-70b5-4ece-aafb-1388f4bc5d65)

## Euskaldunen hizkuntza-gaitasun erlatiboa

Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko<sup>4</sup> erakusten du 3. Irudiak. Honela ulertzen da erraztasun-maila hori:

- Euskaraz (euskal elebiduna): erraztasun handiagoa dauka euskaraz hitz egiteko erdaraz baino.
- Euskaraz eta erdaraz (elebidun orekatua): bietan berdin, hau da, antzeko erraztasuna du euskaraz zein erdaraz hitz egiteko.
- Erdaraz (erdal elebiduna): erraztasun handiagoa dauka erdaraz hitz egiteko euskaraz baino.




### 3.Irudia: Euskararen Adierazle Sistema. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Goiko irudiak erakusten du duela 25 urte baino euskaldun gutxiagok duela euskaraz aritzeko erraztasuna, nahiz eta 2. irudiak erakutsi digun gaitasunari dagokionez kontrakoa joera antzematen dela.

<sup>4</sup> Euskararen Adierazle Sistema: Hemendik hartua:  
[http://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px20\\_e.px/table/tableViewLayout1/?rxid=e40a8dcb-c05e-4767-b723-8110b4e87e25](http://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px20_e.px/table/tableViewLayout1/?rxid=e40a8dcb-c05e-4767-b723-8110b4e87e25)

## Lankideekin hizkuntza-erabilera

Lankideekin erabiltzen den hizkuntzaren<sup>5</sup> atalean, hauxe da kontuan hartu beharrekoa: erdara esatean gaztelaniari buruz ari gara Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, eta frantsesari buruz Ipar Euskal Herrian.



#### 4. Irudia: Euskararen Adierazle Sistema. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Azken grafiko horrek argi erakusten du lan-harremanetako hizkuntza nagusia erdara dela baina euskara bidea egiten doala lan munduan.

Hauxe esaten digute datuok: hizkuntza gaitasunaren adierazleari erreparatuz gero, azken 25 urteotan, euskaldunen (euskaldun oso) eta euskaldun hartzaileen kopuruek gora egin dute zertxobait, eta behera egin du erdaldunen kopuruak (2. irudia). Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, ordea, euskara errazago baliatzen dutenen kopuruak zertxobait behera egin du, eta apurtxo bat gora, berriz, erdaraz hobeto moldatzen direnena (3. irudia). Azkenik, lan arloko grafikoari erreparatuta ikusten da euskara apurka-apurka lekua irabazten doala langileen arteko harremanetan (4. irudia), baina zalantzarako betarik ez du uzten irudi horrek: erdara da lan munduko hizkuntza nagusia, baita euskaldunen artean ere.

<sup>5</sup> Euskararen Adierazle Sistema: Hemendik hartua:

[http://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px21\\_e.px/chart/chartViewColumn/?rxid=1ea7f156-27d4-409a-9f32-87510f2577e6](http://www.euskadi.eus/eusadierazle/PXWeb/pxweb/eu/euskera/-/px21_e.px/chart/chartViewColumn/?rxid=1ea7f156-27d4-409a-9f32-87510f2577e6)

## 4 HEDABIDEEN JARDUNA: AUDIENTZIAK

Ikerketa lan honetarako, hedabide tradizional nagusietan jarri da fokua: prentsa, irrati eta telebista. Hedabideek dituzten audientziei erreparatuta hautatu dira ikerketa honetarako interpelatu diren hedabideak. Eginak zeuden bi neurketa (inkesta) baliatu dira hautaketa hori egiteko: bata, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2015ean agindu zuena (euskarazko hedabideei buruzkoa), eta bestea, CIES etxeak<sup>6</sup> urtero egin ohi duen inkesta (aurrekoaren paretsu izateko, 2016an argitaratua aukeratu da hemen)<sup>7</sup>.

Horra aipatu inkestek emandako datu nagusiak:

### Euskarazko Hedabideak (HPSren inkesta, 2015)<sup>8</sup>

Inkesta honen unibertsoa 690.250 pertsonakoa izan zen, eta honako hauek hartu zituen kontuan: 16 urte edo gehiagoko biztanleak EAE osoan, Nafarroako eremu euskaldunetan eta mistoan eta Iparraldeko 5 udalerritan (Hendaia, Urruña, Biriatu, Sara eta Senpere).

Horietarik: % 94 euskaldunak dira, eta gainerako % 6a gai da euskarazko irrati edo telebista bat ondo edo nahiko ondo jarraitzeko edo euskarazko aldizkari bat ondo ulertzeko.

Izenburutik erator litekeen bezala, inkesta honek euskarazko hedabideen audientziak ezagutzea zuen helburu, ez erdal hedabideen kontsumoari buruzko datuak. Beraz, oso neurketa partziala da gure ikuspuntutik: irrati eta telebista erdaldunen kontsumoaren daturik ez du jaso, eta egunkariei dagokienez, aldiz, bai, euskarazko eta merkatuko beste egunkariak (elebidun zein erdaldun hutsak) zenbat irakurtzen diren ere galdetu baitute. Datu horiek jaso direnez, ikerketa honetara ekartzea balioetsi da, batik bat neurketa Euskal Herri osokoa delako.

Hona zer irakurtzen duten inkesta horri erantzun diotenek:

Egunkaria	Irakurleak (%)
Diario Vasco	% 27
El Correo	% 25
Deia / Noticias	% 22
Gara	% 20
Berria	% 17
El País	% 7

<sup>6</sup> CIESek, besteak beste, Euskadiko eta Nafarroako hedabideen audientziak neurtzen ditu.

<sup>7</sup> 2017. urteko hondarrean ekindako lan honi egoki zetorkion bi inkesta horiei erreparatzea (denboran bat baitzetozen, nahiz eta neurketetarako hartutako unibertsoan aldeak izan). Hala ere, zehaztu behar da *Jendaurrean Erabiliren* eremua EAera eta Nafarroara mugatzen dela oraingoz; orobat aipatu behar da Euskal Herriko egitura administratibo zatikatuak ez duela bermatzen hedabideen arloan egindako inkesta bateraturik.

<sup>8</sup> "Euskarazko Hedabideak" (2015eko urria) [Hemendik hartua:

[http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/20132016\\_legealdia\\_dok/es\\_def/adjuntos/EUSKARAZKO%20hedabideak%202015.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/20132016_legealdia_dok/es_def/adjuntos/EUSKARAZKO%20hedabideak%202015.pdf)]

Hitza	% 6
El Mundo	% 3
Ez dute irakurtzen	% 22

*1. taula: Egunkari-irakurleak Euskal Herrian. Iturria: HPS, 2015eko urria.*

1. taulak erakusten duenez, argi ikusten da gaztelaniaz irakurtzen direla, nagusiki, egunkariak Euskal Herrian.

### **CIESen inkesta (2016), EAE eta Nafarroa**

Txosten hau 2015ean batutako datuetan oinarritua da. CIEsek 14 urtetik gorako biztanleak hartzen ditu kontuan; EAEko eta Nafarroako hedabideen audientzia neurketak ekarriko ditugu. Hauek dira inkestak lantzeko hartutako populazio-unibertsioak, hurrenez hurren: EAEkoa 1.901.000 pertsona eta Nafarroakoa 546.000 pertsona.

Datuek erakutsiko digute zein hedabide diren gure inguruan gehien kontsumitzen direnak. EAEko eta Nafarroako inkestek utzitako emaitzetatik zera aurreratu dezakegu:

- Euskara bizien dagoen gunetan kontsumitzen dira gehien hedabide euskaldunak, aurreikus zitekeen moduan.
- Hala ere, EAEn zein Nafarroan, espainolezko hedabideak dira gehien kontsumitzen direnak.
- Prentsan Vocentoren (El Diario Vasco eta El Correo) hedabideak dira nagusi; irratan SER katea (Prisa); telebistan, Tele5 eta ETB2, EAEn; A3 eta TV1, Nafarroan.

Ikus 2. taulan ohiko hedabideen audientzia orokorrak, CIEsek (2016) emandako datuetan EAerako eta Nafarroarako:

Hedabidea	EAEko audientzia		Nafarroako audientzia	
Prensa	44,70%	849.747	47,43%	258.968
Irratia	58,86%	1.118.929	60,43%	329.948
Telebista	82,48%	1.567.945	80,58%	439.967
Internet	68,43%	1.300.854	72,89%	397.979
GUZTIRA		1.901.000		546.000

*2. taula: Ohiko hedabideen audientzia orokorrak, 2016. Iturria: CIES.*

Xeha ditzagun 2016ko datuok, orain:

#### **4.1 PRENTSA**

2016ko CIESen arabera, EAEn, 851.000 pertsonak irakurtzen dute papereko egunkariren bat egunero. Nafarroan, berriz, 259.000 irakurleak kontsumitzen dute papereko egunkariren bat, egunero.

EAE			NAFARROA		
El Correo	441.000	51,82%	Diario de Navarra	173.000	66,80%
Diario Vasco	233.000	27,38%	Diario de Noticias	84.000	32,43%
Deia	85.000	9,99%	El País	25.000	9,65%
Gara	73.000	8,58%	Marca	21.000	8,11%
Marca	67.000	7,87%	Gara	18.000	6,95%
El País	63.000	7,40%	El Mundo	11.000	4,25%
Berria	56.000	6,58%	Berria	7.000	2,70%
El Mundo Deportivo	34.000	4,00%	Diario Vasco	5.000	1,93%
El Mundo	31.000	3,64%			
Noticias Gipuzkoa	27.000	3,17%			
Diario Noticias Alava	20.000	2,35%			
<b>Irakurleak Guztira</b>	<b>851.000</b>		<b>Irakurleak Guztira</b>	<b>259.000</b>	

**3. taula. Papereko prentsa irakurleak, 2016. Iturria: CIES.**

Edizio elektronikoei dagokienez, zertxobait aldatzen da panorama, baina euskara erabiltzen duten hedabideen audientziak ez dira datu altuagoak:

(\*) 2016an ez da neurtu zenbatak irakurri zuten prentsako edizio elektronikokoak 'atzo', eta, beraz, irakurleen kopuru osoa falta da.

EAE (*)		NAFARROA (*)	
Elcorreo.com	270.000	Diariodenavarra.es	86.000
Eldiariovasco.com	116.000	Diariodenoticias.com	67.000
Elpais.com	115.000	Elpais.com	42.000
Marca.com	94.000	Elmundo.es	34.000
Elmundo.es	71.000	Marca	31.000
Deia.com	57.000	Gara-Naiz.info	11.000
Gara-Naiz.info	48.000	Berria.eus	4.000
Diariodenoticias.com	41.000		
Berria.eus	34.000		

**4. taula. Prentsa digitaleko irakurleak, 2016. Iturria: CIES.**

Bi ondorio nagusi datoz hortik: lehena, Estatu espainiarra erreferentzia eremu nagusitzat hartzen duten egunkariak dira irakurrienak: Vocento taldeko El Correo eta El Diario Vasco, Unidad Editorial taldeko Marca eta El Mundo, Prisako El País eta Godó Taldeko El mundo deportivo. Irakurleek gutxiago edaten dute beren erreferentzia eremua Euskal Herrian kokatzen duten egunkarietatik: Deia / Noticias de Gipuzkoa / Diario de Noticias de Alava, Gara eta Berria. Bigarren ondorioa: euskararen presentzia EAeko eta Nafarroako prentsan oso urria da, guztiz minoritarioa: egunkari bakarra argitaratzen da erabat euskaraz (Berria), eta beste batzuen kasuan (Garan eta Noticias Taldekoetan) gaztelaniaren aldera desorekatutako elebitasuna erabiltzen da.



## 4.2 IRRATIA

2016ko CIEsen arabera, EAEn, 1.119.000 pertsonak entzuten du irratia egunero (populazioaren % 58,86k), eta Nafarroan 330.000 pertsonak (% 60,43).

EAE 1.119.000 entzule		NAFARROA 330.000 entzule	
SER (Bilbao, Vitoria, San Sebastián)	222.000	SER Navarra	63.000
EITBko erdazkaroak	168.000	Cope Navarra	46.000
EITB Formula	131.000	C100 Navarra	40.000
EITBko euskarazkoak	103.000	Onda Cero Na	38.000
Nervión+Gorbea	79.000	Europa Fm Na	37.000
Cadena 100	77.000	Rock Fm	25.000
Onda Cero	69.000	<i>Beste batzuk</i>	----
COPE	72.000	Radio Euskadi	17.000
Europa Fm	47.000	<i>Beste batzuk</i>	----
Onda Vasca	41.000	Gaztea	10.000
Herri Irratia	22.000	Euskadi Irratia	9.000
		<i>Beste batzuk</i>	----
		Euskalerrria Irratia	6.000

**5. taula. Irratiko audientziak, 2016. Iturria: CIES.**

Datuon bistara ondorioztatu daitekeenez, euskarazko irratigintza jeneralistari erreparatuz gero, prentsarekin gertatzen den bezalaxe, guztiz minoritarioa da entzuleen kopurua: EAEn, 103.000 entzule zenbatzen dira, entzule guztien %10etik behera, eta irratia jeneralistetako entzuleen %13,8. Nafarroan, 9.000 entzule besterik ez du Euskadi Irratiak egunero (entzule guztien, % 2,7; irratia jeneralisten, % 4,2).

Dialaren gainerako ia oso-oso gaztelaniaz entzuten da Hego Euskal Herrian.

## 4.3 TELEBISTA

2016ko EGMren arabera, Espainian populazioaren % 88,3k ikusten du telebista egunero, eta pertsona bakoitzak, batez beste, 237,7 minutu ematen ditu telebista aurrean. EAeko populazioaren % 89,5ek ikusten du telebista eta Nafarroako % 87,2k. Baina kontsumoari erreparatuta, bai EAEn bai Nafarroan, batez beste, jendeak denbora gutxiago ematen du telebista aurrean: 208 minutu EAeko biztanleek eta 216 minutu nafarrek.

CIEsek ematen dituen datuen arabera, EAEn 1.560.000 pertsonak ikusten du telebista egunero (populazioaren % 82,5), eta Nafarroan 440.000 pertsonak (% 80,6).

Prentsarekin eta irratiarekin ikusi dugun moduan, Hego Euskal Herrian gehien kontsumitzen den telebista erdarazkoa da, askogatik gainera. Erdarazko askoz kate gehiago daude: kate jeneralista bakarra dago euskaraz (ETB1), eta horrez gain, badira ETB3 eta tokiko telebistak, baina audientzia oso apalekin. Aukera gehiago, beraz, erdarazko kateei lotzeko. Aukera ugaritasun horrek, baina ez du, seguruena, erabat azaltzen euskarazko telebistetan neurtu

diren audientzia hain urriak. Edozelan ere, ikus ditzagun zer audientzia neurtu zituen CIEsek 2016an.

Banaka aztertuta, EAEn eta Nafarroan gehien ikusten diren kateak honako hauek dira:

EAE 1.568.000 ikusle		NAFARROA 440.000 ikusle	
Tele5	377.000	A3	118.000
ETB 2	371.000	TV1	118.000
A3	364.000	Tele5	102.000
La Sexta	364.000	La Sexta	95.000
TV1	312.000	Cuatro	49.000
Cuatro	181.000	NATV	44.000
ETB1	140.000	ETB 2	43.000
TV2	86.000	TV2	27.000
Tokiko TBak	83.000	ETB1	23.000
		Xaloa TB	4.000

**6. taula. Telebista audientziak, 2016. Iturria: CIES.**

Lan honetan, baina, hedabideek lan egiten duten hizkuntzari erreparatzen zaio, eta ikuspuntu horretatik, EAEn, 1.560.000 ikusleetatik, 140.000 dira ETB1 ikusten dutenak. Tokiko telebisten audientzietatik (83.000) batzuk euskarazkoak izango dira, baina ez dugu datu zehatz hori. Bestela esanda, % 9 hartzaile inguru dira, gutxienez, euskarazko telebista ikusten dutenak (eta —tokiko telebista guztiak euskarazkoak direla pentsatuko bagenu— gehienez, % 14).

Nafarroan, berriz, ETB1 eta Xaloa telebistaren datuak ditugu, eta telebista kateetan audientzia txikiak dira: 23.000 eta 4.000 ikusle, hurrenen hurren. Guztira ere, euskarazko telebistek 27.000 ikusle inguru dituzte egunean, alegia populazioaren % 6,13.

Txosten hau amaitzeko garaian CIEsek 2019ko lehen neurketa egina zuen (urteko lehen seihilekoan), eta plazaratutako datuak ekarriko ditugu hona, EAE eta Nafarroako hedabideen kontsumoaren joeren datu orokorrak norantz egin duten erakustearren:

2019ko lehen neurketa	EAE		NAFARROA	
<b>Unibertsoa:</b> 14 urtetik gorako biztanleak	1.913.000	100,00%	553.000	100,00%
Prensa	664.000	34,71%	201.000	36,35%
Prensa digitala	678.000	35,44%	177.000	32,01%
Irratia	1.053.000	55,04%	302.000	54,61%
Telebista	1.449.000	75,74%	392.000	70,89%

**7. taula. Hedabideen audientziak, 2019ko maiatza. Iturria: CIES.**

7. taula honetako datuak 2. taulakoekin alderatua, 2016ko inkestakoekin alegia, honakoak azpimarratuko ditugu:

- 14 urtetik gorako biztanleen kopuruak gora egin du bai EAEn eta bai Nafarroan (12.000 eta 7.000 pertsona gehiago daude, hurrenez hurren).
- Prentsaren kontsumoa paperean hamar puntu urritu da eta digitalekoak gaina hartu dio paperari EAEn (Nafarroan, ez). Puntu hau argitzea komeni da: 2016ko neurketan ez ziren prentsa digitaleko irakurleak 'atzo' zenbat izan ziren orotara neurtu.
- Irratia zertxobait gehiago entzuten da gaur: bi puntu gehiago EAEn, eta lau puntu eta erdi gehiago Nafarroan.
- Telebistan audientziak jaitsi egin dira; irratian gora egin duen proportzio berean, bai EAEn eta bai Nafarroan.

Prentsaren atala bi taulatan bereizi da: papereko prentsaren (7. taula) eta digitalaren (8. taula) irakurleen arabera. Lehenik nabari dena da papereko irakurle kopuruak behera egin duela, eta gora, berriz, digitalekoak. Espero zitekeen bezala.

EAE 664.000 irakurle		NAFARROA 201.000 irakurle	
El Correo	341.000	Diario de Navarra	139.000
Diario Vasco	183.000	Diario de Noticias	73.000
Deia	70.000	Marca	18.000
Gara	58.000	Gara	10.000
Hitza	53.000		
Marca	38.000	El País	7.000
Berria	38.000	Diario Vasco	6.000
El País	29.000	Berria	6.000
El Mundo Deportivo	24.000	El Mundo	3.000
Noticias Gipuzkoa	21.000		
Diario Noticias Alava	17.000		
El Mundo	17.000		
As	8.000		

**8. taula. Papereko prentsa irakurleak, 2019ko maiatza. Iturria: CIES.**

3. eta 8. taulak alderatuta hauxe ikusten da: Papereko irakurleetan ez da ohitura aldaketa nabarmenik antzeman: Vocentoko prentsa da irakurriena EAEn, eta Diario de Navarra, Nafarroan. Eta irakurle kopuruen araberako sailkapenean, ordena berean segitzen du egunkariak zerrendak.

Prentsa digitaleko irakurleek ere paperekoaren joerari jarraitzen diote (9. taula).

EAE 678.000 irakurle		NAFARROA 177.000 irakurle	
Elcorreo.com	302.000	Diariodenavarra.es	92.000
Elpais.com	136.000	Noticiasdenavarra.com	81.000
Eldiariovasco.com	119.000	Elpais.com	32.000
Marca.com	106.000	Marca	31.000
Deia.com	95.000	Elmundo.es	24.000
Elmundo.es	76.000	Navarra.com	14.000
Naiz.eus (Gara)	56.000	Naiz.eus (Gara)	11.000
Berria.eus	42.000	Elmundudeportivo.com	7.000
Noticiasdegipuzkoa.com	26.000	Berria.eus	6.000
Elmundudeportivo.com	26.000	Eldiario.es	5.000
Noticiasdealava.com	23.000	Elconfidencial.com	4.000
Eldiario.es	20.000	Expansion.com	3.000
Elconfidencial.com	18.000	As.com	3.000
Gasteizhoy.com	15.000	Diariovasco.com	2.000
Publico.es	15.000		
Hitza.ataria.eus	9.000		

**9. taula. Prentsa digitaleko irakurleak, 2019ko maiatza. Iturria: CIES.**

Talde editorialen araberako sailkapenez aritu gara egunkarien audientziak emandakoan, baina goiko taula horietan egunkari bakoitzaren irakurle kopurua zein den zehatzago ikusten da.

Irratiaren joera ikusteko, 5. eta 10. Taulak alderatu behar dira. Ikusten denez, SER irratiek dituzte entzule gehien orain ere, eta gaztelera da irratietako hizkuntza nagusia. Funtsean ez da aldaketarik gertatu irratien zerrendetan ere (Nafarroan, C100 eta Cope irratien artekoa izan ezik).

EAE 1.053.000 entzule		NAFARROA 302.000 entzule	
SER (Bilbao, Vitoria, San Sebastián)	158.000	SER Navarra	55.000
EITBko erdazkaroak	158.000	C100 Navarra	41.000
EITBko euskarazkoak	107.000	Cope Navarra	39.000
EITB Formula	104.000	Onda Cero Na	31.000
Cadena 100	76.000	Europa Fm Na	24.000
Onda Cero	66.000	Rock Fm	23.000
COPE taldekoak	66.000	<i>Beste batzuk</i>	----
Rock Fm	63.000	Radio Euskadi	15.000
Onda Vasca	35.000	<i>Beste batzuk</i>	----
Europa Fm	37.000	Gaztea	9.000
Herri Irratia	19.000	Euskadi Irratia	9.000
		Euskalerria Irratia	6.000

**10. taula. Irratiko audientziak, 2019ko maiatza. Iturria: CIES.**

Telebistaren joerari antzemateko, 6. eta 11. taulei erreparatu behar zaie: Aldaketarik nabarmenenak hauek dira:

- a) Ordainpeko kanalek eta TDTak leku handi irabazi dute ikusleen artean, beste irekiko kanal guztien aurretik baitaude EAEn, eta Nafarroan bigarren eta hirugarren postuan.
- b) EAEn, ETB2 Tele5-ri gailendu zaio, eta Tokiko telebistek ere TV2ren aurretik kokatu dira. Bi aldaketok erakusten dute ikus-entzuleek bertako telebisten programazioa hobetsi dutela (lehen kasuan gaztelaniaz izan arren). Nafarroan, La Sexta jarri da Tele 5ren aurretik.
- c) Gainerakoan, ez da joera aldaketa nabarmenik sumatzen, telebistako ikus-entzuleen gustuetan.

EAE 1.449.000 ikusle		NAFARROA 392.000 ikusle	
Ordainpeko kanalak	487.000	A3	121.000
TDT	444.000	Ordainpeko kanalak	121.000
ETB 2	407.000	TDT	116.000
A3	354.000	TV1	98.000
Tele5	344.000	La Sexta	87.000
La Sexta	334.000	Tele 5	86.000
TV1	235.000	ETB 2	54.000
Cuatro	167.000	Cuatro	45.000
ETB1	130.000	ETB1	25.000
Tokiko TBak	129.000	TV2	19.000
TV2	84.000	Xaloa TB	8.000
		Hamaika	5.000

**11. taula. Telebista audientziak, 2019ko maiatza. Iturria: CIES.**

## 5 IKERKETA METODOLOGIA

Arestian gogoratu denez, *Jendurrean Erabili* proiektuaren azken helburua komunikazio publikoan gertatzen diren hizkuntza dinamikak eraldatzea da. Horretarako hartu dugun egitekoa da Praktika Komunitatea osatzen duten erakundeek hedabideekin izan ohi dituzten harremanak aztertzea.

Bide horretan, iker-galdera hauek planteatu ditugu:

- 1. Zein dira PK-ko erakundeen beharrak komunikazio espaziora agertzen direnean? Zein hedabiderekin dute harremana? Nolako harremanak?**
  - 1.1. Hizkuntzaren erabilerari gagozkiolarik, zein dira erakundeek nabaritzen dituzten ahuleziak eta hutsuneak?**
- 2. Zer eskaintzen diete hedabideek erakundeei?**
  - 2.1. Hizkuntzari gagozkiolarik, zein dira hedabideen erabilera ohiturak?**
  - 2.2. Erakundeen hizkuntza-azturei erantzungo badiete, zer hizkuntza-politika dute hedabideek? (Nola jokutzen dute hedabideekin? Zein irizpiderekin?)**
  - 2.3. Zer premia dituzte hedabideek eurek?**
- 3. Erakundeen eta hedabideen premietatik abiatuta, zer egin daiteke erakunde-hedabide harremanak gerturatzeko, elkar ulertzea errazteko?**
  - 3.1. Zein da erakunde-hedabide harremanean ezarri daitekeen zoru komuna?**
  - 3.2. Zer jarraibide proposa daiteke erakundeak eta hedabideak elkarrengandik gertuago egon daitezen?**

PK-ko erakundeen eta hedabideen arteko harremana ezagutzeko oinarria eztabaida taldeak (bi) (focus group) eta elkarrizketa sakonak (zazpi) izan dira. Ikerketan parte hartzen duten eragileon ahotsa entzun eta euren eguneroko jardunetik jasotako informazioa baliatu da egoeraren diagnostikoa egin eta gure iker-galderei erantzuteko. Honela planteatu da, zehazki: PK-ko ordezkariekin bi focus group egitea lehenik, eta, ondoren, hedabideetako pertsona esanguratsuekin elkarrizketa sakonak egitea (erredakzio buru, hizkuntza arduradun, kazetari koordinatzaile...).

### 5.1 PRAKTIKA KOMUNITATEKO PARTAIDEEKIN EZTABAIDA TALDEAK

2018ko ekainaren 8an, goizeko 10:00etan, prest zeuden bi gune Euskaltzaindiaren Villasante Ikerketa zentroan, Tolare baserrian (Donostia), eta hantxe bildu ziren bi eztabaida taldeak, Idurre Eskisabelek eta Beatriz Zabalondok gidatuta.

Egun horretan, *Jendaurrean Erabili* PK-ko erakundeetako 17 ordezkari bildu eta bi saio egin ziren. Taldeetan, 8 eta 9 pertsonak hartu zuten parte. Eztabaida saio horien hasieran, ikertzaileek dinamika zein izango zen azaldu zieten partehartzaileei (ikus 1. eranskinean).

Honako irizpideak baliatu ziren taldeak egiteko:

- Erakundeko ordezkariaren lan-arloa: komunikazio arduradun (kom) ala euskara arduradun (eus) ziren.
- Erakundearen izaera: euskararen biziberritzean zentratutako erakundeak (eusklg) ala bestelakoak (best) ziren.
- Generoa: gizonezkoak (gz) ala emakumezkoak (em) ziren.

Taldeak osatzean, hiru irizpidetakoak egotea begiratu zen. Honako bi talde hauek osatu ziren:

A Taldea	B Taldea
A01: kom-eusklg-em	B01: eus-best-gz
A02: kom-eusklg-gz	B02: eus-eusklg-gz
A03: kom-eusklg-em	B03: kom-eusklg-gz
A04: kom-best-em	B04: kom-best-em
A05: kom-eusklg-gz	B05: kom-best-gz
A06: kom-best-gz	B06: eus-best-gz
A07: kom-best-gz	B07: eus-best-em
A08: eus-best-gz	B08: eus-best-gz
A09: kom-best-em	

Juaristi irakasleari (2003) jarraiki, “eztabaida taldea informazioa lortzeko moderatzailearen eta taldekide batzuen artean egiten den eztabaida da”. Talde horretan parte hartzen dutenen iritzia ezagutzeko teknika da hau; izan ere, taldekideek interes edo esperientzia berdintsuak dituzte, eta euren arteko eztabaidatik ateratzen diren gaiak aztertzen ditu ikerlariak. Saioa ondo prestatu behar da, eta horretarako atontzen den gidoia ez du zurrun-zurruna izan beharrik. “Hori bai, gidoian agertzen diren gai guztiei buruz hitz egiten saiatu beharko gara” (Juaristi, 2003: 170). Ikus 2. eranskinean eztabaida taldeak egiteko baliatu zen galdetegia.

## 5.2 HEDABIDEETAKO ORDEZKARIEKIN ELKARRIZKETA SAKONAK

Sakoneko elkarrizketak konfiantza giroan egin ohi dira, izan ere “elkarrizketa ez da ondo aterako elkarrizketatuaren eta elkarrizketagilearen artean mesfidantza bada, mendetasun harremana sortzen bada edo elkarrizketa susmo txarrekin hasten bada” (Juaristi, 2003: 140). Autore honek dioskunez, elkarrizketa ez da ez inprobisatua ez guztiz kontrolatua izan behar. Baina oso komenigarria da aurrez pentsatu eta landutako gidoi bati jarraitzea. Ikerketa teknika hau oso erabilia da Gizarte Zientzietan, hain zuzen, elkarrizketatu-elkarrizketatzaile arteko solas horretan anonimotasuna eskatzen duten gaiak lantzeko. Gure ikerketara ekarri genituen hedabideei ere hitza eman genien anonimotasuna gordeko genuela; horrek ahalbidetu zuen hedabideek nahiko lasai hitz egitea hizkuntza-praktikei buruz duten iritzi eta irizpideez. Batzuetan ikergai hori polemika bide eta katramilatsua bilakatzen baita.

Hedabideek zer hizkuntza-ohitura duten jakiteko eta nor elkarrizketatzea komeni zen erabakitzeko, audientzia neurketek eman dituzte lehen zantzuak. Gainera, proiektuan parte hartzen duten PK-ko erakundeak zein hedabidetara jo ohi duten kontuan hartu da; azkenik, lurralde osoko hedabideak errepresentatuta izatea bilatu da, eta, ahal dela, hedabide talde guztietakoak elkarrizketatzea.

### **Aurrekariak:**

2017an, *Gipuzkoa Berdinago*<sup>9</sup> proiektuaren baitan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidaritzapean, hainbat elkarrizketa eta harreman egin ziren ikerketa honetan landu diren antzeko gaien inguruan. Kasu hartan, Gipuzkoako hainbat hedabideren iritziak jaso ziren. Argitaratu gabeko emaitzak izanik ere, egokitzat ikusi zen oraingoan ez jotzea orduan elkarrizketatutako hedabideengana.

Zazpi elkarrizketa egin dira eta horietan zortzi pertsonak hartu dute parte (elkarrizketetako batean bi pertsona izan dira). Agentziak, egunkariak, irratia eta kanal anitzeko komunikazio taldeak daude elkarrizketatuen artean. Elkarrizketatuen artetik bostek ardurua maila goreneko kargua zuten. Donostian, Bilbon eta Gasteizen kokatutako hedabideak izan dira eta hiri horietan egin dira elkarrizketak. Bost emakume eta hiru gizon izan dira elkarrizketetan parte hartu dutenak. Zortzi elkarrizketatuetatik lau euskaraz mintzatzeko gai ziren eta beste lau ez. Idurre Eskisabelek, Irati Agirreaazkuenagak eta Asier Basurtok elkarrizketatu dituzte hedabideetako ordezkariak.

Anonimotasuna bermatze aldera, kode bidez izendatuko dira hedabideak, eta ez da zehaztuko zein motatakoa den bakoitza, ez zein herrialdetakoa. Honela emango ditugu:

- *H01*: Zuzendaria (gz), 2018ko azaroaren 29an elkarrizketatua.
- *H02*: Albistegietako zuzendaria (em) eta Euskara Saileko burua (gz), 2018ko azaroaren 7an elkarrizketatua.

<sup>9</sup> Argibide gehiago: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaber dintasuna/gipuzkoa-berdinago>; <http://www.soziolinguistika.eus/node/6869>.



- *H03*: Lurraldeko koordinatzailea (em), 2019ko otsailaren 28an elkarrizketatua.
- *H04*: Zuzendaria (em) 2018ko urriaren 11n elkarrizketatua.
- *H05*: Herrialdeko erredaktore burua (em), 2018ko irailaren 13an elkarrizketatua.
- *H06*: Webguneko Euskara ataleko arduraduna (gz), 2019ko martxoaren 19an elkarrizketatua.
- *H07*: Lurraldeko ordezkari burua (em), 2019ko martxoaren 1ean elkarrizketatua.

Elkarrizketatu diren pertsonak badute zeresana komunikazioaren arloan, beren hedabideen barruan: zuzendariak, erredakzio buruak, albistegietako buruak... dira. Urteetako esperientzia dutenak, eta ondo ezagutzen dutenak hedabidea.

Bistan denez, eta *Jendaurrean Erabili* proiektua komunikazio publikoaren eremuan txertatua delarik, arlo, sekzio edo programa mota horretara mugatu gara (fikzioak, agendak edo beste zerbitzu mota batek ez baitute lekurik).

### **Hutsunea:**

Aipatu behar da hasieran egindako diseinuaren arabera jaso beharreko ikuspegi guztiak ez direla jaso ahal izan, elkarrizketaren bat gauzatzea ezinezkoa izan delako.

Elkarrizketa prozesua aurreikusitakoa baino luzeagoa izan da, besteak beste, elkarrizketatuetako batzuekin harremanetan jartzea, proposatutako elkarrizketa onartzea eta jarritako hitzorduak gauzatzea atzeratu egin delako: 2019ko apirilean, itxitzat eman zen datuak biltzeko fasea.

## 6 EMAITZAK

Atal honetan, bi solasaldi taldeetatik eta zazpi elkarrizketa sakonetatik bildutako informazioa ekarri dugu; gaika bilduta datoz. Lehenik PK-ko erakundeekin egindako solasaldien muina emango dugu, eta ondoren hedabideetako ordezkariekin egindako elkarrizketen berri.

### 6.1 ERAKUNDEEN IKUSPEGIA

Eztabaida taldeetan azaleratu ziren gai nagusiak multzokatuta emango ditugu segidan:

#### 6.1.1 PK-ko erakundeen bizipenak eta harremanak hedabideekin

Praktika Komunitatearen barruan badira erakunde handiak eta txikiak, eta, beraz, lehenak publiko handiagoentzat aritzen dira, eta bigarrenak berriz, audientzia mugatuagoentzat. Publikoak ere heterogeneoak dira erakunde bakoitzarentzat, eta zer esanik ez erakundeen artean alderatuz gero.

Erakunde hauek guztiak aritzen dira jendaurreko komunikazioan; hau da, erakundearen kanpo komunikazioaren atalaz ari gara. Esan berri dugun bezala, badira aldeak batzuen eta besteen artean, hedabideengana jotzeko maiztasunari dagokionez: “Guk ez daukagu egutegi jakin bat, edo puntualtasun batean, maiztasun baten barruan hedabideetara irten behar hori” (B02). Beste alde batetik: “Guk bai, egunero [komunikatzen dugu] zer edo zer, eta egunen arabera, batzuetan lau-bost-sei prentsa ohar ere egiten ditugu” (A04). Hona ekarri ditugun bi adibideak ez dira PK-ko ez erakunde txikiena ez handiena.

Beraz, erakundeek ez dute maiztasun berarekin jarduten hedabideekin, komunikazio-premiak ere desberdinak dituzte eta: batzuek gutxitan baino ez dute hedabideetara jotzen, edo oso noizean behineko harremana dute; beste batzuek, berriz, maiztasun handiz jotzen dute hedabideetara: urte osoan eta eguneroko harremana izan ohi dute; azkenik, badira aldian behingo harremanak dituztenak, baina denbora laburrean intentsitate handikoak izan ohi direnak (Kilometroak, Korrika, Hauteskundeak...).

Komunikazio horrek hainbat eratarako formatuak ditu: prentsaurrekoak, hitzaldiak edo ekitaldi formatuak, esate baterako. Eta askotan —nahiz beti ez izan hala—, hedabide tradizionalak aurrean direla jarduten dira: prentsa, telebista, irratia, agentziak. Horrek esan nahi du besteak beste, hedabideen beharra dutela mezuak zabaltzeko euren publikoei, eta, jakina, elkar baldintzatzen dutela. Esate baterako, hedabide batek erabaki dezake albiste bihurtzea komunikazio hori edo ez; plazaratzea edo ez, eta abar.

Gero eta gehiago, baina, erakundeek beren hedabide propioak baliatzera jotzen dute, teknologiaren erabilera errazaren eta merkatzearen ondorioz. Erosoago ere bada eurentzat: ez dira hedabideen ordutegi eta dinamiken hain mende egon behar, nahi ez badute. Gainera, nahieran dute formatua aukeratzea ere: idatzikoak, ikus-entzunezkoak... Horren jakitun dira hedabideak.

Hedabide nagusiekin (tradizionalekin) dituzten harremanei buruz bat datoz erakunde gehienak. Honela sailkatu dituzte harreman mota horiek:

-zuzeneko harremanak (telefonoz, aurrez aurrekoak...)

- agerraldiak, prentsa oharrak
- iritzi artikuluak, kolaborazioak eta abar...
- publizitatea hedabideetan

Bide horiez gain, kanpo komunikazioari lotuta, berariaz prestatutako kanpainak ere aipatu dira (kasuan-kasuan propio ekoizitako materialarekin: eskuorriak...).

### **6.1.2 Erakundeak informazio iturri gisa**

Gaur egun, komunikatu nahi duen edozein erakunde bi eginkizun betetzen ditu: batetik, albiste iturri den heinean, albisteak sortzen ditu, orain arte bezala; beste alde batetik, albisteak hedatzen ditu, hedatzeko premia ere bai baitu —informazioaren amaraunean bere mezua entzungo bada, behintzat—.

Komunikazio publikoari dagokionez, egunerokoan, hainbat dinamika sortzen dira erakundeetan, dela hedabideen bitartez, dela bide propioez lantzen dena.

#### **Hedabide nagusien bitartez egiten den komunikazioan:**

- 1) Erakunde bat hedabide batekin jartzen denean harremanetan informazioa helarazteko, erakundeak komunikazioaren kontrola galtzen du, nolabait esan. Hedabideak duen ahalmena (audientzia) behar du erakundeak bere informazioak oihartzun ahalik eta handiena izan dezan, baina bi zentzutan bilakatzen da mendeko: hedabideak bere erara zabaltzen du informazioa —erabaki, erabakitzen du baita zabaldu edo ez zabaldu ere—, eta hedabideen errutinen eta jardunaren menpeko da —noiz hedatu hedabidearen esku dago, gehienetan, eta informazio hori hedabidearen audientzia nitxo jakinetara hedatuko da, normalean—.

Audientzia oso handia duten erakundeek nahiz interes orokorreko gaiak komunikatzen dituztenek, badakite hedabideek erantzungo dietela euren deiari; baina ez dute ziurtasun hori beste erakunde 'apalago' batzuek. Horko ordezkariak diote erakunde handi baten eta hedabideen artean dagoen indar korrelazioa eta eurek dutena arrunt desberdina dela. Horrek asko baldintzatzen du erakunde txikien jarduna, prentsaurrekoak deitzeari ere uko egiteraino. Azken batean, sekulako lana hartu izan dute prentsaurrekoak prestatzen eta hedabiderik agertu ez (ezta erakundearen txioari jarraitu ere). Beraz, erakunde txikiak ez dute lehen beste/hainbeste jotzen hedabide tradizionaletara beren informazioa zabaltzeko helburuarekin, ez baitute ziurtasunik jaramonik egingo zaienik bide horretatik.

(A06)-ko ordezkariaren iritzi, hedabide tradizionaletan dagoen prekarietatearen ondorioz gertatzen da hori.

- 2) Komunikazioaren mundua aldatu den arren, erakundeek hedabideen beharra dute euren kanpo publikoengana iristeko. Ados dira erakundeak lan egiteko moduak aldatu direla esatean. Honela adierazi du (A07)-ek: "Sare sozialen bitartez zuzenean

komunikatzeko aukera handiagoa duzu, eta horrek lan egiteko moduan aldaketak egin beharra sortzen dizu, produkzioa ere desberdina izatea, baita euskarri motak ere. Baina oraindik ere hedabideetan ez dagoenak ez dauka halako garrantzia. Esan nahi dut, behar ditugu oraindik ere [hedabideak]”.

- 3) Erakundeetako bozeramaileen hizkuntza gaitasuna. Gai hori kezka iturri da erakundeentzat. Eguneroko jardunean ikusten dute: bozeramaile batzuk elebidunak dira, eta ondo menderatzen dituzte bi hizkuntzak. Baina elebakar direnak edo euskaraz gaizki moldatzen direnek erabat baldintzatzen dute erakundearen jardun linguistikoa. Eledunen hizkuntza gaitasunak eta pertsonaren jarrerak eta sentiberatasunak euskararekiko zeresan erabatekoa du.

Erakunde publiko handietan, zera ziurtatu beharko litzateke: ordezkariak aldatzen direnean, gutxienez, hemendik aurrera datozen bozeramaile berriei hizkuntza eskakizun minimoak eskatzea, euskaraz aritzeko gaitasun gutxienekoa izatea. Kezka hori espreski azaldu dute hainbat erakundeetako ordezkariak( (B06), (A09), (B04), (B08), eta (B07)-koek, besteak beste).

Hau erronka garrantzitsua da edozein erakunderentzat, baina agintaritza publikoan berandu baino lehen ziurtatu beharrekoa. Hartara, hedabide erdaldunek ere erreferentziazkotzat hartuko lukete euskarazko komunikazioa, ez bigarren mailakotzat.

- 4) Erakunde-hedabide harremanean, erakunde txikiek eurek jotzen dute hedabideengana. Baina erakunde handiek diote hedabideak doazela erakundeengana: ekinaren ekinez, eta informazioa eskuratu eta hedatu beharrez, kazetariak badakite erakundearen noren atean jo eta zer lortu: oso gainean egon ohi dira batzuk. Honela dio (B08)-ko ordezkariak: “EAEn irakurle gehien dituen taldeko bizpahiru kazetari dabilta egunero gure egoitzan”.

Inoiz, kazetari atzerritarrekin ere izaten dituzte harremanak; horrelakoetan, gaztelaniaz jarduten dute: haiek ez dakite euskaraz. Edo interpretazio zerbitzuak jartzen dituzte, baina beti zubi-hizkuntza gaztelania dela.

- 5) Gaia nolakoa den eta informazioa hedatzeko helburuak zein diren kontuan hartuta, erakundearen aldetik ere harreman interesatua da: informazioa zein hedabideetan eta zein hizkuntzatan hedatu hautatzen da. Batzuetan euskara bazter uztea hobesten da, berria non zabaltzea nahi den edota gaia zein den: euskal komunitateari ez ezik, ondoko erdal komunitatearengana iriste hutsa izan daiteke helburu behinena: esate baterako, protesta deialdi handi baten berri ematea edozein lurraldetan, euskararen aldeko ekimenen albisteak zabaltzea Araban...
- 6) Kazetaritza jardueraren aldaketa. Etabaidetan argi adierazi dute partaideek ohartzen direla kazetaritzan gertatu diren aldaketez: prekarizazioa da nagusi, eta ez dago nahikoa kazetari eguneko jarduna betetzeko; hala, hedabide handienetakoak salbuetsita, hedabide txikiagoko kazetariak ez dira iristen, eta nekez joaten dira prentsaurrekoetara ere. Erredakziotik egiten dute lan. Horrek, besteak beste, erakundeak mugiarazten ditu: informazioa erredakzioetara (edo kasuan-kasuan, kazetari jakinei) helarazi beharrean ikusten dute euren burua: txostenak, ikus-entzunezko laginak eta abar.

7) Barne kontraesanak ere badira. Erakundeek batzuetan ez dute nahikoa mezuak euskaraz zabaldua. Gaiaren nolakoak eta lurraldetasunak bultzatuta, erdaraz argitaratzeko eskakizuna egin izan diete hedabideei. Ez da ohikoa horrela egitea, euskal komunitatean arruntagoak diren gaiak erdal komunitatera ere iristea nahi dutenean gertatu ohi da, baina ez da erraza: “Kosta egiten zaigu edukiak gazteleraz agertzea hedabideetan, eta guri, batzuetan, interesatzen zaigu eduki horiek gazteleraz agertzea” dio (B03)-ko ordezkariak. Izan ere, beren hartzailen parte (handi) bat gaztelaniaduna baita.

(A03)-eko ordezkariak dioenez, euren erakundeak kolaborazio bidezko harremana izan du orain arte euskarazko hedabideekin; orain bestelako interesa dute: “Gure helburua erdarazko hedabide horiekin harremanak izatea da, baina euskararen normalizazio-kontzientiazio arloa lantzeko eurekin”. Komunikazio helburuetatik haragoko xedea jarri dute: euren bezero erdaldunei ere zerbitzuak ezagutzera emateko aukera bezala ikusten baitute.

### **Erakundeek beren bide propioez hedatzea informazioa:**

PK-ko erakundeek euren bide propioak baliatuta ere sortzen eta hedatzen dute informazioa. Gero eta informazio gehiago, gero eta maizago. Bi tresna nagusi dituzte: webgune eta sare sozial propioak; azken urteetan, indar eta baliabide ugari jartzen ari dira horien garapenean eta eraginkortasunean.

Tresna horiei esker, erakundeek informazioa kontrolpean dute publikoari helarazteko unean, eta gainera nahierara kudeatzen dute darabilten hizkuntza ere. Ahalmen handia dute horretarako, eta gizartean eta hedabide tradizionalen aurrean ere eredu sortzaile dira (beste bide batzuk izan badirela erakusten dute, eta publiko berriei hitz egiteko ez dagoela soilik gaztelaniaz aritu beharrik). Gizartean gero eta pertsona gehiagok baitaki euskaraz, gutxienez ulertze mailan (3.4. puntuan erakutsi dugun legez).

Hauek dira erakundeek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak Facebook, Twitter, eta, gero eta gehiago, Whatsapp.

Erakunde eta hedabideen arteko harremanari dagokionez, (B07)-ko ordezkariak beste puntu interesgarri bat jarri du hizpide:

---

*“Nik hirugarren elementu bat sartuko nuke [batez ere hedapenari lotua]. Ez dakit zein hitz erabili: opinion makerrak edo [iritzi sortzaileak]. Gu konturatu gara gure informazioa pertsona jakin batzuei bidalita, horiek sare sozialetan daukaten jarraitzaile kopuruarengatik asko biralizatzen dituztela gure deialdiak, gero eta gehiago. Hauxe egiten dut: pertsona jakin batzuei e-mailez bidali niri interesatzen zaidana, prestatu sare sozialetan zabaltzeko moduko euskarri batean, eta badakit beraiek biralizatuko dutela. Norbanakoak dira. (...) Badakit ez dela bakarrik erakunde-kazetaria: hor badago beste jende multzo bat gure informazioa zabaltzen ari dena. Modu informalean egiten dut, baina*

*funtzionatzen du. Egia esan, gu txikiak gara [eta posible zaigu horrela jokatzeari].”*

### 6.1.3 Erakunde barneko hizkuntza politikak (erabilera)

Eztabaida taldeetan, PK-ko erakundeetako ordezkariari galdetu zitzaizkien zein hizkuntza politika darabilten hedabideekin harremanetan jartzean. Nagusiki euskaraz funtzionatzeko joera dute, berez. Baina barne komunikazioan euskaraz aritu arren, kanporako komunikazioan kasuistika asko zabaltzen da: erakundearen jardun eremuaren, premien eta neurriaren —dituen publikoen— arabera.

Oro har, euskarazko hedabideekin duten harremana arazo barik kudeatzen dute, hizkuntzari dagokionez. Beste kontu bat da hedabideetan lekua egiteko izan dezaketen zailtasuna: gorago aipatu dugun prekarizazioaren ondorioz, euskarazko prentsak, esate baterako, gero eta orrialde gutxiago ditu, eta gizartea ere aldatu egin da. Hala dio (A01)-eko ordezkariak:

*“Gero eta zailagoa da egunkari batean lekua edukitzea: gero eta orri gutxiago daukate eta gai batzuei ez zaie ematen orain dela urte batzuk ematen zitzaizkien lekua. Kirolen sailetik orrien %10 kendu bada, gure gauzak sartzen diren lekuan %40 jaitsi da. Hor lekua topatzea konplikatuagoa da.”*

Euskarazkoak ez diren hedabideengana jotzen denean, erakunde gehienok ele bitan bidaltzen dute informazioa, batik bat erakunde publiko handiek. Horiek markatzen dute bidea, nolabait esan: baliabide gehien dituztenak eurak dira, eta kualitatiboki ere eredu dira hizkuntzaren erabileran. Alegia, materiala bi eletan ekoizteko ohitura ezarrita daukate, eta hala bidaltzen dute hedabide guztietara.

Aldez aurretik hedabideei bidalitako materialaz gain, agerraldietan euskaraz soilik ekoitzi bada informazio-materiala (zuzeneko audio lagina, prentsaurrekoko galdera-erantzunak...) erakundeek ez dute trabarik jartzen gaztelaniara itzultzeko eskatutakoan. Arazoa beste bat izan daiteke: gaztelaniaz besterik ez dakien kazetariak pazientzia galtzea prentsaurrekoa euskaraz eman delako, eta galde-erantzunen txandan ere euskaraz hasi direlako bozeramaileak hizketan. Orainsu arteko ohitura izan baita gaztelaniari beti lehentasuna ematea.

Euskara hutsez bidalitako informazioarekin, hedabideko kazetariaren arabera jarraitzen da harremana. Baita lurraldearen arabera ere: eremu euskaldunetan, arazorik ez da izaten. Eremu ez-euskaldunetan, kazetariak ez badaki euskaraz, haren jarrera eta gogoak asko eragiten du harremanean. Jarrera ona antzeman ohi zaie gehienetan orain. Normalean erakundeek baliabide guztiak eskaintzen dizkie hedabide erdaldunei, eta aurrez aurreko harremanean ez dira tematzen euskaraz egiten solaskideak ez dakiela jakinda.

Erakunde batzuek, euskaraz eta gaztelaniaz ez ezik, frantsesez eta ingelesez ere egiten dute komunikazioa. Hedabide tradizionalekin aritzeko, itzulpena eta interpretazioa baliatzen dituzte, egoeraren arabera. Erakundearen bide propioetatik hedatzeko mezuak beste askatasun bat dago: norberak aukeratzen du nola. Esate baterako, (B04) hiru-lau hizkuntzak

maila berean erabiltzen saiatzen da. Euskara bazterrekoena izan da agerraldietan oraintsu arte, baina ari dira pausoak ematen ikusgarritasun gehiago izan dezan. Kasu paradigmaticoa izan daiteke A06 erakundearena:

---

*Gure weba motorra da: Eduki bat sartzen dugunean webgunean, automatikoki argitaratzen da Facebook-en, Google +en —hau nahiz eta sare hila izan, mantentzen dugu prestigioagatik— eta Twitterren. Facebooken kanal bakarra dugu eta euskaraz eta gazteleraz sartzen ditugu sarrerak, zeren bestela zoramena litzateke, batez ere jarraitzaileak biltzeko. Twitterren 4 hizkuntzatan aritzen gara: ingelesez, frantsesez, euskaraz eta gaztelaniaz. Eta paraleloki, zerbait berezia edo azken ordukoa baldin badaukagu, badugu distribuzio zerrenda bat 200 kazetari ingururekin, hori whastapez.*

---

Esan bezala, kasu paradigmaticoa da, eta PK-ko erakunde guztiek ez dute hain publiko zabalik, eta beste era bateko arazoak eta premiak dituzte: “Gu beste mundu batean bizi gara”, laburbildu du (A07)-eko ordezkariak. Erakunde honetan, berriz, Twitter kontu bat dute euskaraz soilik aritzeko, eta beste bat eleanitza euskarazko informazio bera beste hizkuntzetan sartzeko, baina “euskarazko jarraitzaileak gogaitu barik, zeren timeline-a zaborrez betetzeko arriskua baitago”.

Aukera bat baino gehiago dago hedabide propioak kudeatzen direnean, eta erakunde bakoitzak aztertu beharko luke zer komeni zaion: probatu eta ikusi nola ateratzen duen probetxurik onena eta nola eragin dezakeen gehien bere publikoengana iristen. Eta bidez batez, euskararen ikusgarritasunean hedabideen espazioan.

#### **6.1.4 Erakundeen beste behar batzuk**

Erakundeek hedabideekin harremanetan jartzeko erabili ohi dituzten baliabideak aipatu dira gorago. Hainbat zehaztapen egin behar dira, teknologien garapenak eta kazetaritzaren eboluzioak berak aldaketak eragin baitituzte. Esate baterako:

- Erakundeek diote, lehen, telefonoz bideratzen zituztela hedabideekin zituzten harreman asko, normalean, kazetari jakinekin; orain gutxiago baliatzen da, eta Whatsappak ordezkatu du neurri batean harreman mota hori. Batez ere difusiorako. Gaur egun gehienek erabiltzen dute.
- Garai batean prentsaurreko asko deitzen zituzten erakundeek. Gero eta urriagoak direla diote: Kazeten krisiaren ondorio (orrialde gutxi, espaziorik ez / kazetari gutxiago, ezin iritsi denera). Horrekin beste aldaketa batzuk nabaritu dira komunikazioan: kazetaririk ez badago prentsaurrekoetan, galderarik ez da egiten. Azkenean, informazioaren transmisio hutsean geratzen da agerraldia. Eta horrexegatik, hedabide txikietakoek batez ere joateari uzten diote (ez direnez denera iristen hautatu egiten dute nora joan; eta bertaratu beharrean, informazio eta

formatu guztiak bidaltzeko eskatzen diete erakundeei, jakin baitakite erakundeek jada prestatu dituztela).

- Azken urteetan, erakundeek oso gertutik bizi izan dute komunikazio kabineteen gorakada; horrek bi alde ditu euren komunikazio jardunean, ona eta txarra. Alde batetik, erakundeak kabinetearen bitartez bideratzen ditu hedabideekin harremanak (lana arindu eta modu profesionalagoan kudeatzen ditu bere beharrak); beste alde batetik, kabinete horiek hizkuntza gaitasuna eta sentsibilitatea edo ikuspegia duten profesionalak behar dituzte gaurko komunikazio errealitateari erantzungo badiote, eta hori ez da beti bermatzen.
- Arestian aipatu dugun moduan, *Jendaurrean Erabili* PK-ko erakunde batzuek diote gazteleraz komunikatzeko premia ere izan badutela. Hor esperientzia desberdinak azalerau dira: batetik, normalean euren ohiko funtzionamendurako lan tresna euskara baliatzen duten erakundeak, eta komunikazioan ere euskaraz aritu izan direnak gehienetan. Erakunde horiek euskalgintzako (lan honetan, euskalg marka dutenak) erakunde euskararekin oso kontzientziatuak izan dira. Tradizionalki euskaraz egin dituzte kanpainak eta euskaraz mintzatu dira hedabideetan. Orintsu, ordea, ohartu dira euren bezero edo publiko askorengana iristeko, tarteka gaztelaniaz komunikatu beharra dutela.

Badira, euskaraz komunikatzeko kontzientzia handiko erakundeak izanik, erdarazko hedabideetara jotzeko beharra ikusten dutenak, euren gaia dela-eta publiko (euskaldun eta gaztelaniadun/elebidun eta elebakar) guztiengana iritsiko badira.

Bi erakunde mota horiek, batez ere, lehenengokoek, espreski eskatu behar izan diote kazetariari gaztelaniaz argitaratzeko berria, erakundearen izaeragatik-eta betidanik erabili duen komunikazio hizkuntzan aldaketa esan nahi du eta.



## ERAKUNDEEK ESANDAKOA LABURTZE ALDERA

Erakundeek bi bide nagusi baliatzen dituzte egun, komunikazio publikoaren alorrean dituzten beharrei erantzuteko. Batetik, hedabide tradizionalen bitartez kudeatzen dutena, eta bestetik beren medio propioez, batik bat webgunetik eta sare sozialetatik. Erakundeek dituzten 'iritzi sortzaileak' (opinion maker) mezuak zabaltzeko bitartekari onak bilakatzen ari dira: erakundeek 'iritzi sortzaile' batzuei bidaltzen dizkie mezuak, eta horiek beren sareetan jarrita oihartzun handia eman ohi zaie.

Hedabideekin dituzten harremani buruz, hainbat puntu nabarmendu dituzte:

- Erakundeek kanal propioak izan arren, oraindik ere **beharrezkoak dituzte hedabideak**.
- Erakunde-hedabide harremanean, erakundeak **kanal hauen bitartez** komunikatzen dira hedabideekin: harreman pertsonala kazetariarekin (aurrez aurre, zein telefonoz), prentsa-oharrak, prentsaurrekoak, sare sozialak.
- PK-ko erakundeek **bi hizkuntza (euskara, gaztelania) erabili ohi dituzte hedabideekin** harremanean:
  - Euskaraz soilik, euskal hedabideekin: Publiko euskaldunarengana iristeko. Publiko murriztuek baino ezin dituzte jaso mezu horiek; alegia, euskaraz dakitenek soilik, baina euskaldunak ez daudenez homogeneoki bananduta eskualde guztietan, ez da beti erraza publiko euskaldunengana ere iristea.
  - Hala, hedabide elebidunetara jotzeko premia ikusten dute erakundeek eta hala egiten dute hedabide horietan publiko potentziala dutela sinetsita.
  - Ele bitan komunikatu ohi dira erakunde publiko gehienak eta lan munduko beste erakunde batzuk, hedabide euskaldun zein elebidunekin. Publikoen hizkuntza eskubideak errespetatze aldera, batik bat. Azken urteetan asko ugaritu dira ele bietan funtzionatzen hasi diren erakundeak.
- Erakundeak kontziente dira **hedabideen egoera prekarioaz**, eta badakite erredakzioetan ez dagoela behar beste kazetari, eta, beraz, ezin direnez agerraldi eta deialdi guztietara iritsi, aukeratu egiten dutela nor bidali eta nora joan. Horrek erakundeen mezuen difusioa murrizten du (hala ere, ez da murrizketaren faktore bakarra).

Funtzionamendu errutinak:

- Mail-a, whatsapp, sareak dira gehien baliatzen diren tresnak. Harreman pertsonalak urteen poderioz lortzen dira normalean, baina eguneko informazio lantzeko nekez jotzen da horietara; informazio bereziak direnean edo jarraipena egiteko-eta, bai.
- Erakundeak hedabidearen aldean nor dagoen baldin badaki (berarekin harremana bideratzeko pertsona nor den), euskaraz edo ele bitan bideratu ohi du komunikazioa, bien hizkuntza gaitasunaren arabera.

- Idatzizko komunikazioak (konbokatoriak, prentsa oharrak..) gehienetan ele bitan bidaltzen dira orain (salbu eta erakunde jakin batzuek euskaraz bidaltzen dutena euskarazko hedabide jakinetara)
- Prentsaurrekoak ez dira garai batean bezainbeste egiten, eta ez da beti deitutako prentsa guztia agertzen

Hizkuntzari dagokionez:

- **Lehen baino nabarmenagoa da euskararen presentzia komunikazio publikoan.**
- **Erakunde publikoek** erabat egiten dute beren komunikazioa **ele bietan**, eta horrek asko lagundu du euskarak balio komunikatiboa hartzen. Beren lanarekin eta medioekin eredugarri bilakatu dira.
- **Erakunde publikoek baliabideak** dituzte informazio ele bietan emateko: itzultzeko, interpretazioa egiteko... Baita bozeramaileak formatzeko ere.
- **Gainerako erakundeek beren baliabideen neurria** jokatzen dute: interpretaziorako baliabiderik ez dute, normalean, adibidez. Zenbaitek ingelesa eta frantsesa ere erabiltzen dute komunikazio publikoan.
- Erakundeak kontziente dira **ezin direla euskara hutsez agertu** hedabideen aurrera: euskaraz arituta ere, bidea eman behar diete hedabideei informazioa gaztelaniaz jasotzeko (aldez aurretik bidalitako idatzi eta ikus-entzunezkoetan bezala, baita aurrez aurreko agerraldietan ere —galderak egiten zaizkienean edo korteak eskatutakoan, adibidez).
- Hala ere, **erakundeek uste dute euskararen presentziak gehiagora egin behar duela**, eta hedabideekin lana eta hizkuntza partekatzeko bidea eta borondatea ikusten dute.

## 6.2 HEDABIDEEN IKUSPEGIA

Zazpi hedabideetako ordezkariekin izandako elkarrizketetan jasotako hausnarketak eta iritziak (edukiak) ekarri ditugu hona. Aurreko atalean eztabaida taldeekin jokatu den eran, atalka bildu ditugu hemen ere gai nagusiak, gehienetan hedabideei egindako galderen inguruabarrean:

### 6.2.1 Komunikazioaren munduko aldaketak

Hainbat arlotatik erantzun diote hedabideetako ordezkariak galdera honi:

#### Aldaketa teknologikoa.

Aldaketa handiena lehenik Internetek berak eta ondoren sare sozialek eragindakoa dela dio H04-ko ordezkariak: Interneten eragina inpaktu handikoa izan dela eta oso arin gertatu dela dio. Izan ere, bi alderditan zehaztu du eragin hau:

---

*El tema de Internet primero supuso el cambio de que todos los medios empezaron a tener presencia en la red, y, por lo tanto, añadía un plus de inmediatez a todo el tema informativo. Quizás eso sí que era algo más habitual, por ejemplo, en la radio, pero no en un periódico. (...) Que un periódico tenga una página web significa que esa noticia ya no va a esperar al día siguiente para que el lector la pueda leer.<sup>10</sup>*

---

Bistan denez, egunkariak nahi eta nahi ez izan behar dute kontuan hori, paperean argitaratzen diren albisteek beste taxu bat hartu beharko baitute.

Sare sozialen bitartez etorritako aldaketa nabarmena, azkenaldian fake news delakoek izaten diharduten eraginean islatzen da, "kazetariaren eta hartzailearen ikuspegia aldatu dira": hartzailea bera informazio igorle bihurtua da (ez profesionala). Horrek informazio iturriengan ere eragina du. Politikariak, kasu, ez dute kazetarien hainbesteko beharrik, eta beren profiletik irits daitezke beren publikoengana, hala dio H04-ko ordezkariak:

---

*Hoy en día cualquier cargo público, político-sindical, incluso, cualquier empresa, ya no necesita seguramente un periodista o sólo un periodista en un medio que traslade su noticia, lo que sea, sino que él mismo, directamente, puede llegar al público a través de su red social, de su perfil en Twitter, en Facebook o lo que sea"*

---

---

<sup>10</sup> "Gaur, hedabide guztiek dute presentzia sarean, eta horrek berehalakotasunaren plusa erantsi dio informazioari. Izan ere, berehalakotasunaren ezaugarria bazuen irratia, baina prentsak ez, adibidez, eta zentzu horretan, hedabide guztiek gehitu diote ezaugarri hori beren jardunari. (...) Egunkari batek weba izateak zera dakar, ez dela biharamunera itxaron behar azken gertaeraren albistea irakurtzeko."

<sup>11</sup> "Gaur egun, edozein kargu publikok, politiko-sindikalek edo edozein enpresak ere ez du behar kazetari bat, ez behintzat kazetari bat soilik hedabide batean bere albistea zabaltzeko. Bera zuzenean heldu daiteke publikoarengana bere sare sozialaren bidez, Twitter, Facebook edo edonola."

## Aldaketak hedabideen funtzioetan

Oinarrian ez bide da hainbeste aldatu: hedabide bakoitzak bere funtzioei heltzen die (gutxi-asko). Irratiak esaterako: informatu, entzulea entretenitu, eta gertutasuna eskaini. Hala mintzo zen H05-eko ordezkaria:

---

*Las funciones principales de lo que es la radio, que es de lo que más puedo hablar yo, siguen siendo las mismas: informar y entretener al oyente, básicamente. Y es verdad que esa cercanía, que también es otra de las características de la radio, ahí sigue estando. Por ese lado, no ha cambiado nada.*<sup>12</sup>

---

## Aldaketak eguneroko lanean

Aldaketa, baina, gertatu, gertatu da, egunerokoan nabaritzen baitute denek gehien: alde batetik, teknologia berriekin, lana erraztu egin da; nahiz eta beste alde batetik, profesionalak onartzen dut dezente konplikatu zaiela: batik bat eguneroko lan zama gehitu zaie:

---

*Por ejemplo, cuando yo entré en (.....) lo único que hacíamos era radio. Ahora hacemos radio, pero hacemos también una página web, y eso significa que ya no sólo locutas para hacer una noticia de radio, sino que también tienes que redactar noticias, tienes que sacar fotografías para ilustrar la noticia, etc.*<sup>13</sup>

---

*H05-eko ordezkaria*

---

Formatu berrietan ere antzematen da aldaketa: hartzaileek informazioa zuzenean (etxean, autoan, kalean zehar kaskoak jarrita...) edo geroago (webgunean, podcast-ak eta abar) jasotzeko aukera dute.

## Hedabide barneko aldaketak.

Hedabideak etengabe ari dira ikerkuntza egiten eta bide berriak probatzen, batik bat alor digitalean: esaterako, webak garatzen, SEO posizionamenduan, sareko azalak luzatzen... ikusgarritasuna eta eraginkortasuna lantzen, finean.

Honela dio H06-ko ordezkariak:

---

*Los demás periódicos nacionales también están haciendo que la portada sea más larga. ¿Por qué? Porque los contenidos que no están en portada se ha demostrado*

---

---

<sup>12</sup> "Irratiaren oinarrizko funtzioak —hori da nik gehien hitz egin dezakedana— berberak dira: entzulea informatu eta entretenitzea, nagusiki. Eta gertutasun hori irratia beste oinarrizko ezaugarri bat da, eta hor dago oraindik. Alde horretatik, ez da ezer aldatu."

<sup>13</sup> "Adibidez, ni (.....)-n sartu nintzenez irratia soilik egiten genuen. Orain irratia egiten dugu, baina baita webgune bat ere, eta horrek esan nahi du irratiko esatari lanaz gainera albisteak idatzi, ilustratzeko argazkiak atera eta abar ere egin behar duzula."

---

*con los datos que hay que no se ven apenas. La gente en las subportadas no entra. Una noticia (...) si no está en la propia portada, está en la subportada de [su sección], pero es raro que la gente entre. No es como el periódico en papel que tú tienes tu sección y es como más ordenado.*<sup>14</sup>

---

H04-ko ordezkariaren iritziz, hedabideak egokitzen dihardute oraindik:

---

*No creo que hayamos llegado al punto final, no tenemos el modelo final que digas 'es así como tiene que funcionar'; hay mucho de experimentación también. Pero desde luego supone que tienes que destinar recursos a esto.*<sup>15</sup>

---

Aldaketa hauek guztiak krisi garaiekin batera etorri dira, eta gogor jo dute kazetaritzan: lanpostu askoren galera, publizitateak beherakada handia, baliabideen urritzea..., eta egoera horretan,

---

*también dificulta el poder adaptarte a nuevas maneras de funcionamiento, sin quizás poder disponer de todos los medios que te gustaría disponer para poder hacer eso*<sup>16</sup>

---

H05-eko ordezkariaren aburuz, "eromena izan da": bat-batean 'ofizio' berriak ikasi behar izan dituztela dio: bere ohiko hedabidearen lana eta beste (lan ezezagun berri) hori. Argi eta garbi adierazi du, horrek izugarri handitu duela profesionalen lan karga: etorriaren gainean ikasiz joan dira. Honela laburbiltzen du:

---

*De repente pasas de hacer una noticia de 50 segundos para contarla en antena, a hacer la noticia de 50 segundos, a hacer una noticias redactada para una página web, a tener que subir los audios, a tener que subir los off-s, a tener que subir la foto... Nos ha obligado a ponernos las pilas, a veces con agobios, pero sin perder el trabajo de calle, porque entonces, mal vamos.*<sup>17</sup>

---

---

<sup>14</sup> "Gainerako egunkari nazionalak ere azal luzeagoa egiten ari dira. Zergatik? Frogatu baita, datuen bidez, azalean ez dauden edukiak ia ez direla ikusten. Jendea azpi-azalean ez da sartzen. (...) albiste bat, azalean ez badago, [Bere ataleko] azpi-azalean dago, baina arraroa da jendea sartzea. Ez da paperezko egunkarietan bezala, atal bakoitza daukazula eta dena ordenatuago dagoela."

<sup>15</sup> "Ez dut uste azken puntura iritsi garenik, ezin da esan 'hau' da eredu, eta esperimintatzen jarraitu behar dugu. Argi dagoena da baliabideak jarri behar ditugula honetan."

<sup>16</sup> "funtzionatzeko modu berriei taxua hartzea ere ez da erraza, batik bat ez daukazunean nahiko zenituzkeen baliabide guztiak."

<sup>17</sup> "50 segundoko albisteak egin, eta antenan kontatuzetik webgunerako idatzizko albistea egitera pasatu gara, gehi argazkia, gehi podcasta, gehi off-ak... Kemena berri (pilak jarri) behar izan dugu, larri ibilita askotan, baina kaleko lanari uko egin gabe. Horri uko eginez gero, akabo!"

## Aldaketak kazetariaren lanean (erakunde publikoekin).

Kazetariak erakunde publikoekin dituzten harremanei dagokionez, aldaketa handiak gertatu dira. H05-ko ordezkariaren iritziz, onerako etorri den aldaketa izan da:

---

*Ha habido un cambio ara bien, porque de llegar a una rueda de prensa y tener una mesa en la que aparecen 30 micrófonos, incluso el sonido, si te quedabas muy lejos no entraba muy bien; de ahí a llegar y hay una toma de sonido: eso es maravilloso.*<sup>18</sup>

---

Azken batean, teknologia berrien onurez ari da, eta profesionalei lana errazteko bidez:

---

*Las nuevas tecnologías han facilitado mucho el trabajo. Cuando es el periodista el que no tiene tiempo, el que no llega a todo, viene bien, porque si el tema es interesante, te lo mandan ya dado y está genial.*<sup>19</sup>

---

Erakunde handien jardunaz ari da, jakina. Erakunde txikiagoek ez dute horrenbesteko ahalmenik eta baliabiderik.

Edozelan ere, ezin da aipatu gabe utzi alde negatibo edo ilunagoa:

---

*En el lado negativo, quizás hemos perdido un poco de contacto con los políticos, con las instituciones: No está bien que el corte que va a sonar en antena te lo den ya dado; o sea, echas en falta a veces el poder preguntar y el poder decir 'Bueno, ya tú me quieres vender esto, pero yo en realidad lo que quiero es preguntar por esto.'*<sup>20</sup>

*Ho4-ko ordezkaria*

---

Ordezkarri honek kazetaritzaren funtsezko lanari daukan balioa eman eta bere eginkizuna aitortu nahi dio.

---

<sup>18</sup> "Lehen prentsaurreko batera joan eta 30 mikro aukitzen zenituen eta zurea urruti samar geratuz gero, soinu txarrarekin itzultzen zinen erredakziara; orain soinu-hargailua dago eta hori zoragarria da!"

<sup>19</sup> "Esate baterako, oso ondo datoz [teknologia berriak] egun batean kazetaria ezin denean iritsi toki batera, ez dakit zer prentsaurrekotara; gaia interesgarria baldin bada, kortea egina bidaliko baitizute, eta hori eroso da"

<sup>20</sup> "Agerraldira iristen ez zarenean, batzuetan faltan botatzen da galdetzeko aukera izatea". Iturriekin —erakunde publikoekin, politikariekin— zuzeneko harremana galtzeko joera ere antzematen baita. "Dena prentsa oharra/komunikatua eta kortea izanez gero, iturriari galdetzeko eta zera esateko aukera galtzen dugu: 'Ederto, zuk hori saldu nahi didazu, baina nik beste hau galdetu nahi dizut' "

Hedabideek ez dituzte soilik erakunde handien albisteak jarraitzen. Badituzte beste iturri batzuk ere: elkarteak, kolektiboak, enpresa ertainak... Horrelakoetan, kazetariak berak bilatu behar ditu iturriak eta albistea.

Edonola ere, sarri bai sarri, kortea eskatzeko deitu arren, telefono bidezko jarraipena egin behar dute kazetariak —eta egiten dute—, beste albiste batzuk edo beste ikuspuntu batzuk jasotzeko.

## 6.2.2 Erakundeak nola jartzen dira harremanetan hedabideekin?

Erakundeak hedabideekin harremanetan jartzeko dituzten errutinak, nolabait esan, ez dira izugarri aldatu; baina haiek informazioa lortzeko bidea zuzeneko da orain.

Zatika aletuko ditugu erantzun hauek ere.

### Webguneak eta sare sozialak

Edozein enpresa edo erakunde badu bere webgunea eta bere profilak sareetan; alegia, berak eskainiko du informazio hori hedabideetara eta, oro har, publiko osoari:

---

*Eso te da una puerta de entrada, quizá, que antes no había; cualquier empresa, tiene su página web, sus perfiles en redes sociales, con lo cual, él mismo va a ofrecer esa información a los medios de comunicación y al público general en su propio perfil; antes se generaba o bien por el contacto directo entre personas, o bien porque esa empresa lanzaba un mailing de nota de prensa, de un comunicado, de lo que fuera.<sup>21</sup>*

*Ho4-ko ordezkaria*

---

Baina enpresa handien artean edo neurri batekoei erreparatuta, hauxe gehitu nahi izan du ordezkari horrek:

---

*Las grandes empresas, en fin, de cierto tamaño, yo creo que será una excepción el que no tenga hoy en día un apartado de redes sociales, un gestor de redes sociales, un responsable de comunicación, ya sea interno o sea un gabinete externo que le gestione la comunicación; y yo creo que hoy en día lo normal es que el canal de comunicación con el público de ese tipo de noticias también tengan su vertiente, digamos, directa con el público a través de esos medios. Sí que es cierto que también esas empresas, normalmente por tamaño y por el propio interés que tienen, quieren que esa información sea tratada de una*

---

<sup>21</sup> "Ez zegoen ate bat ireki dute: enpresak/erakundeak berak eskaintzen die informazioa hedabideei eta publikoari oro har, beren profiletatik. Lehen, pertsonen arteko harremanak ziren gehiago edo enpresak egindako mailing bidez igortzen ziren prentsa oharrak eta komunikatuak"

---

*manera profesional, también se preocupan de tener ese contacto con los medios de comunicación.<sup>22</sup>*

---

Informazioa helarazteko formatuetan ere aldaketak etorri dira, lehenago ere aipatu dugunez:

---

*Por ejemplo, es muy habitual que un partido político te mande un corte de voz, un audio con declaraciones de no sé qué concejal sobre tal tema, en lugar de dar una rueda de prensa, en lugar de convocar a los medios o en lugar de tú hacer una llamada para que te diga qué opina de no sé lo qué. Pero se siguen manteniendo también los formatos tradicionales, es decir, el contacto del periodista con sus fuentes, que al final es lo que genera normalmente la información de mayor valor añadido.*

---

#### *H04-ko ordezkaria*

---

Formatuen artean, gehien erabiliak honako hauek dira:

- Neurri handi batean, prentsa oharrak (kasuen % 40-50, dio H04-ko ordezkariak).

---

*La rutina, en general, suele ser mediante nota de prensa, lo que pasa es que está cambiando mucho el tema con las redes sociales.<sup>23</sup>*

---

#### *H03-ko ordezkaria*

---

- Prentsaurrekoak, sektorearen arabera, baina edozein kasutan ere, oraindik asko egiten dira.
- Biak: prentsa oharrak eta prentsaurrekoak

Formatu desberdinetako materiala eskuratzeko arazorik ez dute izaten kazetariak:

---

*Si tú no has podido ir a una rueda de prensa por la razón que sea, casi seguro que vas a tener disponible una nota de prensa, incluso, hoy en día, vas a tener disponible un audio, en muchos casos y a nada que el emisor tenga un*

---

<sup>22</sup> "Enpresa handien artean —edo neurri batekoak direnen artean—, salbuespena izango da sare sozialen atala ez duenik, sare sozialen kudeatzaile bat, komunikazio arduradun bat —barnekoa edo kanpoko gabinete batekoa—; gaur ohikoa da publikoarekin harreman zuzena izatea bide horietatik. Baina, aldi berean, erakunde horiek, duten tamaina eta beren interes propioengatik, informazioa profesionalki landu nahi izaten dute, eta hedabideekin harremanak izateaz ere arduratzen dira."

<sup>23</sup> "Lan errutinan, normalean, prentsa oharrak gailentzen dira, baina gauza asko aldatzen ari da sare sozialen kontuarekin"



*departamento o agente de prensa dedicado a ello, vas a tener un audio, vas a tener imágenes, fotografías...*<sup>24</sup>

#### *Ho4-ko ordezkaria*

H05-eko ordezkariak dioenez, erakunde publikoak dira, batik bat, prentsarekin agerraldiak antolatzen dituztenak (prentsaurrekoak). Hedabide horren aburuz, albisteak era askotara iristen dira erredakzioetara, eta honako hauek ekarri ditu hizpidera:

*Asociaciones y colectivos hay muchos, muchísimos. De aquí también llegan bastantes cosas. De gente de la calle que te llama, «oye, mira, es que ha pasado esto y es que estoy viendo esto». También. Del periodista que sale a buscar algo, a hacer una entrevista de no sé qué y de repente se encuentra con otra historia diferente. (...) La cantidad de notas de prensa, comunicados, informaciones, que pueden llegar a una redacción en un día es bestial. Y, claro, al final tú también tienes un espacio concreto para cubrir, todo no entra. Entonces, tienes que seleccionar, está claro.*<sup>25</sup>

Informazioa jasotzeko bitarteko teknologikoez galdetuta, gutxi-gehiago hedabide guztiak bat datoz: "Gehiena e-mailez iristen da". Hala ere, hedabide bakoitzak bere erara zehazten du:

H03-ko ordezkariak seinalatzen duenez, deialdiak beti e-mail bidez egiten dira —"ofizial bilakatzeko eta denengana iristeko modua posta elektronikoa da, deialdia daraman e-maila"— eta komunikatu ofizialak prentsa ohar bidez; gai baten jarraipena telefonoz egin ohi da normalean. Baina alderantziz ere bai, hau da, erakundeari interesatzen zaionean, berak deitzen du hedabidera. "Whatsappa ere gero eta gehiago erabiltzen da; whatsapp taldeak".

H02-ko ordezkarietako batek dio: "Bide guztiak erabiltzen dira. Izan daiteke telefonoz, izan daiteke mailez... (...) Ohikoena marrazteko, ibilbidea hauxe litzateke: normalean, arloburu batek-edo jasoko luke eragilearen bai deia bai e-maila, bai bestelako... imajinatzen dut orain whatsappak ere jasoko direla".

Ildo beretik mintzo da H01-eko ordezkaria: "Gehiena, e-mailez. Gero, kazetari bakoitzaren agendaren arabera eta duten harremanaren arabera. Batzuek Whatsapp-a gero eta gehiago erabiltzen dute, baina, orokorrean, esango nuke, e-mailak jarraitzen duela nagusi izaten".

<sup>24</sup> "Prensaurrekora ez bazara joan, eskura izango duzu prentsa oharra eta, gaur egun, audio bat ere bai; askotan, iturri horrek prentsa-sail bat badu edo prentsa-agentzia batekin lan egiten badu, oso litekeena da argazkiak eta irudiak ere helaraztea zuri"

<sup>25</sup> "Bestelako elkarte eta kolektiboak ere asko dira. Horiek ere bidaltzen dute informazioa, eta kaleko jendeak ere deitzen du, esanez 'aizu, hau eta hau gertatu da; ikusten ari naiz oraintxe bertan'. Kazetaria bere istorioen bila ere joaten da, norbait elkarrizketatzera eta abar. Eta litekeena da horretan diharduela beste istorio bat aurkitzea. (...) Kontua da erredakziara alimaleko informazio kopurua iristen dela egunero, eta hautatu beharra dago. Dena ezin da landu, ezinezkoa da espazio edo tarte jakin batean sartzea."

Ordezkarri honek aipatu duen bezala, interlokutore pertsonalek ere badute zer esanik komunikazioan; kazetari eta eragileen arteko harreman zuzenak asko baliatzen dira: “Normalean, batez ere, politika, kultura eta kiroltan harreman pertsonalak daude. Eta gero dago komunikazio korporatibo marea izugarri bat [buzoi] orokorretara bideratzen dutenak: Kazetarien e-mailaz aparte, sekzioek e-mail kolektibo bat daukate”. Pertsonen bitartez bideratu ohi da harremana, eta “e-mail kolektiboa gehiago izaten da ‘erreskaterako’”. Jakina, zuzeneko harreman horiek ez dira beti era batekoak: “Kazetariaren arabera da”.

H02-ko ordezkarrietako bat ere antzeratsu, sailak edo arloak aipatzen ditu: “Erredakzioa antolatuta daukagu sailetan. Ekonomia, Politika, Kultura, Gizartea... Orduan, eragileak gehiago zuzentzen dira edo arloburuetara edo editoretara edo...” Hau da, normalean, arloburuak edo editoreak jasotzen ditu informazioak —telefono bidez, e-mail bidez...—. Berez, arloburuek jaso ohi dute informazioa, esan den bezala, baina horrez gain, hedabide honek buzoi bat du prebisioak jasotzeko, eta “jendeak horra bidaltzen ditu prebisioak (...) Gero, nola kudeatzen den albiste, hemendik [hedabidetik] hara, bai arloburuak edo jada kazetariak berak deitu dezake. Hor ere bide ezberdinak edo jende ezberdina dago”.

## **Euskarazko sail bereziak**

Elkarrizketatu ditugun hedabideetarik bitan esan digute sail berezia dutela euskarazko informazioa lantzeko: H03 eta H06. Lehenengoan pertsona bakarrak osatzen du sail hori, eta euskarari buruzko orientabideak eskaintzen ditu hedabidean barruan. H06-ko saila handixeagoa da: bi pertsona ari dira euskarazko edukiak sortzen eta elikatzen sarerako, eta badituzte hainbat kolaboratzaile ere. Azken hedabide honetako Euskara arduradunak honela azaldu digu hedabidearen barruan duten funtzionatzeko era:

---

*Llega la nota de prensa, por ejemplo... A ver, ahora mismo, todo el mundo está informado de que el que coordina el tema del euskara soy yo; entonces, cuando llega alguna cosa en euskara, me lo pasan a mí. (...) Yo estoy en un mail general del medio. A ese mail me suelen llegar cosas. Por ejemplo, el otro día, al jefe de Economía, le llegó una cosa en castellano y en euskara, y el tío nos lo mandó. ¿Qué pasa? Que como salió en castellano... Yo también decido un poco. (...) Yo creo que no hay que repetir la información<sup>26</sup>*

---

Bi hedabide horiek, baliabide urriak jarri dituzte euskarazko informazioa lantzeko, baina pauso txiki bat aurrera egitea dela deritzogu, erdara hutsez lan egitetik albiste bakarren batzuk euskaraz ematera igaro baitira. Zein den motibazioa, arrazoia eta noiz arteko apustua izango den jakitea komeniko litzateke (edo hedabideoi jarraipena egitea). Euskara Zerbitzua baliatzen duten bi hedabideok aitortu dute ez dutela itzultzen: propio euskaraz idazten dutela.

---

<sup>26</sup> “Prensa oharra iristen denean euskaraz, denek badakite ni nagoela eta niri pasatzen didate. Ni (...) e-mail orokorrean sartuta nago, eta batzuetan hortik ere sartzen zaizkigu albisteak. (...) Batzuetan nik ere badut erabakimen apur bat, albiste bat —hard news horietakoa— euskaraz joango den edo ez erabakitzeko, baina, nire aburuz, informazioa ez da errepikatu behar [gaztelaniazko eta euskarazko sailean].”

Gainerakoetan, ez dute sail berezirik, nolabait esan erredakzio bakarra baitute —horrek berez, ez du zertan txarra izan—. Baina informazioa euskaraz lantzeko erak —eta kopuruak— ere desberdinak dira: Esango genuke H01-en eta H02-n, arazo handirik gabe landu dezaketela euskaraz (ere) informazioa. H04-ko, H05-eko eta H07-ko ordezkariak diotenez, ez dute erraztasunik albisteak euskaraz ekoizteko. Geroago bueltatuko gara gai honetara.

### 6.2.3 Komunikatu, prentsa ohar eta abarren hizkuntza(k)

Hizkuntzaren gaia jorratzea da ikerketa honen muina eta funtsa. Lehendabizi erakundeek zer hizkuntza darabilten hedabideekin jakin nahi dugu, zein hizkuntza baliatzen duten hedabideetara bidaltzen dituzten komunikazio eta abarretan.

Galdera honi erantzutean, bi adierazpen nagusi eman dizkigute hedabideek: oro har, ele bitan iristen zaiela informazioa, baina beti ere gaien arabera.

Hori esanda, ikus dezagun, iturriaren arabera, nola jasotzen diren hedabideetan komunikatuak, prentsa oharrak eta gainerako informazio piezak:

#### Erakunde publikoek, politikariek, sindikatuek bidaliak

Hedabide guztietako ordezkariak bat datoz esatean erakunde publikoetatik, alderdi politikoetatik eta sindikatuetatik iristen zaizkien komunikatu, prentsa ohar eta informazio ia guzti-guztiak bi eletan jasotzen dituztela, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. “Oso jende gutxi bidaltzen du soilik euskaraz”, H03-ko ordezkariaren aburuz. Batik bat erredakzioetara iristen diren idatzizko informazioez ari gara —are prentsaurrekorik ematen ez bada—. Aipatu berri dugun ordezkariak nabarmendu duenez, Eusko Jaurlaritzatik, diputazioetatik, eta udal handi batzuetatik batera iristen da informazio hori: esan nahi baita ez dela hizkuntza batean bestean baino lehenago iristen. H07-ko ordezkaria bat dator esatean erakunde gehienak bi hizkuntzetan mintzo zaizkiela, baina zehaztu du:

---

*“Hay instituciones y partidos y tal que solo lo hacen [ponerse en contacto con el medio] en castellano; pero mayoritariamente bilingüe”.*<sup>27</sup>

---

Prentsaurreko asko ere bi hizkuntzetan egiteko joera areagotuz doa, nahiz eta bozeramaileen hizkuntza-gaitasuna mugatua gerta daitekeen:

---

*en entrevistas que he hecho a políticos y en diferentes instituciones y demás, me doy cuenta de que muchas veces yo entro en euskara y no saben. No saben o les cuesta o no están cómodos. Hay de todo. En las prentsaurrekos se nota un*

---

<sup>27</sup> “Baina erakunde publiko eta alderdi politiko batzuk soilik gaztelaniaz”.

*montón. Sí, el aurkezpena lo hacen en euskara. Lehenengo hiru hitzak-edo esaten dituzte euskaraz eta gero...<sup>28</sup>*

#### *Ho6-re ordezkaria*

H01-eko ordezkariak dioenez, prentsa oharrez eta konbokatoriez harago, pertsonen arabera da komunikazio hizkuntza: aldea dago nor dagoen “bai alde batean, bai bestean”; igorlearen eta hartzailearen gaitasun komunikatiboa zein den eta zer ohitura dituzten gorabeheran dago. Hala ere, H06-ko ordezkariak dio, lehen harremana, gaztelaniaz egiten dutela erakundeek.

Beste ikuspegi bat ematen du H05-eko ordezkariak:

*Y los que no saben euskara, por lo menos un intento de meter ahí algo en euskara, no sé si por que quede políticamente correcto o no, pero también.<sup>29</sup>*

Ziur asko kasuistika oso zabala da. Kontuan izan behar da elkarrizketatu bakoitzak bere esperientzia propioetik hitz egiten duela, eta litekeena da berari gertatutako kasu partikularrak izatea gogoan honetaz mintzo denean; baina zalantzarik gabe esan daitekeena da idatzizko deialdi ‘ofizialak’ bi hizkuntzatan egin ohi dituztela erakunde gehienek.

### **Enpresa eta gainerakoak**

“Enpresa arloan, gaztelaniak pisu handiagoa du oraindik”, zehaztu nahi izan du H04-ko ordezkariak. Baina gero eta gehiago komunikatzen da euskaraz ere: gero eta enpresa gehiagok baliatzen dituzte bi hizkuntzak, eta “eboluzioa egon da, argi eta garbi” H03.

*Todavía se nota que si es una cosa muy urgente, se manda en castellano y luego llega, un poquito más tarde, pero poco, la traducción en euskara. Pero, ya, generalmente, si es una cosa que está establecida, que está prevista, llega a la vez.<sup>30</sup>*

#### *Ho3-ren ordezkaria*

Elkarte eta kolektiboek dagokienez, H05-eko ordezkariak dio:

<sup>28</sup> “politikariei, erakunde desberdinetan eta horrela egin ditudan elkarrizketetan ohartu naiz ni euskaraz sartu eta ez dakitela. Ez dakite edo kosta egiten zaie edo ez daude eroso. Deenetik dago. Prentsaurrekoetan asko nabaritzen da. Aurkezpena euskaraz egiten dituzte, bai. Baina lehen bizpahiru hitzak euskaraz esan eta gero...”.

<sup>29</sup> “Euskaraz ez dakitenek ere egiten dute ahalegin bat zertxobait euskaraz sartzeko; beharbada politikoki zuzenak izateko, baina bai”.

<sup>30</sup> “Gerta liteke urgentziazko gauza bat erdaraz soilik iristea hasieran, baina berehala dator itzulpena. Batik bat, aurreikusitako gairen bat bada; orduan, bi eletan batera, bai.”

---

*A nivel de asociaciones y colectivos, depende mucho. Hay algunas que sólo es en castellano, hay algunas que sólo es en euskara. Y a nivel de ciudadanos que nos puedan llamar o que nos puedan convocar, también. Depende muchísimo<sup>31</sup>*

---

## Gaien araberako praktikak

Batzuetan gaiaren izaerak ere baldintzatzen du hizkuntza batean edo beste batean jardutea komunikazio publikoan. Esate baterako, hedabideren batek aipatu du euren lurraldeko kirol talde handienetako batek erdaraz eta soilik erdaraz funtzionatzen ote duen susmoa duela. Baina, aldiz, euskarari lotutako gaietan, normalean iturriek dena euskaraz ekoizten dute: prentsa oharra, agerraldia... komunikazio guztia: "Hori ere gertatzen da", dio H04-ko ordezkariak.

Orain arte esandakotik zera ondorioztatzen da: Euskaraz ez dakien interlokutoreari (hedabide zein pertsona izan) nekez zuzenduko zaizkio erakundeak euskaraz soilik (ele bietan, bai), eta, harekin zuzeneko harremanik bada, erdaraz gauzatuko da nagusiki. Pertsonen arteko zuzeneko harremanei lotuta aipatu behar dugu Euskaraldiak utzitako "arrastoa" elkarrizketa hauetan: H01-eko ordezkariak espreski aipatu du: "Gurean badira belarriprest batzuk (...)". Hurrengo puntuan sakonduko da kontu honetan.

## Ohiko beste jokabideak

---

*Gaztelaniazko hedabide bati zuzentzen direnez gero, normalean gaztelaniaz bidaltzen dute. Baliteke euskara ere tartekatzea zertxobait, bai*

*H03-ren ordezkaria.*

---

Konbokatoriak, prentsa oharra eta abar, gehienak, bi eletara bidaltzen dituzte, baina bi pertsonen arteko harreman zuzenak gertatzen direnean, "dauden pertsonen arabera, bai alde batean eta bai bestean" H01. Esan nahi baita komunikazioa ahalbidetzeko ezinbestekoa dela mintzakideek kode bera ezagutzea; ulertzea, gutxienez. Eta haien hizkuntza ohitura pertsonalek ere badute eraginik harreman profesionalean.

Edozein modutan hedabide erdaldunetako ordezkariak onartzen dute badutela informazioa eskuratzeko biderik: "Ahots korteak eskatuz gero edo erredaktore batek ez badaki euskaraz eta azalpena eskatzen badu, arazo barik ematen zaio". Elkarrizketetan parte hartu zenbait ordezkari aitortu digute eurek ez dutela euskarazko prentsaurreko bat segitzeko gaitasunik, baina taldean badutela kazetaririk euskarazko informazioari jarraipena egiteko (nahiz eta gero gaztelaniaz jorratu informazioa).

Ordezkari batzuek diote aldea dagoela lurralde batean edo beste batean jardun lanean: lurralde batean euskaldun kopuru handiagoa dago eta hori nabaritzen da egunerokoan ere:

---

<sup>31</sup> "Denetarik dago: batzuek soilik erdaraz, beste batzuk soilik euskaraz. Eta herritarrek ere deitzen digute, konbokatoriaren batekin; eta horien artean ere gorabehera handiak daude, bai".

euskarazko profesional gaituagoak “hartzeko” joera dute lurralde horretako hedabideek, eta, alderantziz: “Euskaraz gutxiago egiten den lurraldeetan, ez nau horrenbeste kezkatzen horrek”, dio H07-ko ordezkariak.

#### 6.2.4 Azken urteetako ibilbidea

Oro har, esan daiteke, azken urteetan, egoera eboluzionatuz joan dela gizartean eta, horrekin, erakundeen jardun publikoa ere bai. Elkarrizketatu gehienek eman digute nolabaiteko aldaketaren pertzepzioa; batzuk besteek baino gehiago: “Guk ez dugu ikaragarritzko aldaketa nabaritu 15 urtean, baina presentzia handitxoagoa du euskarak. Egia esan, igorleek [erakundeek] ahalegin handia egiten dute hala izan dadin” H05. Eta honela mintzo da H02-ko ordezkarietako bat: “Ez dakit. Igual apur bat, bai. Jende gehiagok hitz egiten du euskaraz agerraldietan. Baina bueno, [diferentzia] nabarmen-nabarmena ez”. Hain zuzen, lankideak berretsi egin du ideia hori: “[Pentsaurreko batzuetan] badakite euskaraz egin behar dutela eta korte bat eskatuko dietela, baina ez dute ateratzen benetan euskaraz dakien pertsona bat? Oraindino segitzen dugu lehengoko eskemekin”.

Bada erakundeko ordezkariak aldatzearekin komunikazio publikoan ere aldaketa nabarmena bizi izan duenik:

---

*Yo entré en la etapa en la que el alcalde era (...), que no hablaba euskara, con lo cual pues ahí el euskara, por ejemplo, por parte de Alcaldía era cero. Siguieron (...) y ahora (...), en ambos casos, los dos conocen perfectamente el euskara y los dos utilizan el euskara. En la Diputación te diría que no he experimentado grandes cambios, se utiliza el euskara, sí o sí, y el castellano. Normalmente, siempre las dos.<sup>32</sup>*

*H03-ordezkaria*

---

Beste muturreko iritzia du H01-eko ordezkariak:

---

*Nik esango nuke urrats handiak eman direla. Komunikazio instituzional eta korporatiboan gaur egun euskaraz ez egiteak erakusten du kontzientzia falta kezkarri bat edo zerbait... Ideologiaz harago, gaizki egiten ari den ebidentzia bat.*

---

Honela laburbil daitezke iritzia: Euskarazko ekoizpen urriena duten hedabideek alde nabarmenagoa igartzen dute: gizartean gehiago egiten da euskaraz eta hedabideetan ere bai. Euskaraz zenbat eta gehiago ekoizten duten, “exigentzia” maila handiagoa dute: egoera euskaldunduago ikusi nahiko lukete, nolabait esan.

---

<sup>32</sup> “Ni (...)ren garaian sartu nintzen eta hark ez zekienez [euskaraz], Alkatetzak zero egiten zuen. Gero (...) eta (...) etorri dira eta biek dakite eta biek erabiltzen dute. Diputazioan ez dut hainbeste aldaketa sumatu: han euskara bai ala bai da, eta gaztelania ere bai: normalean, beti biak.”

Hedabideen barnean zer aldaketa gertatu diren aztertzeko, xeheago begiratuko dugu bi puntu hauetan:

### Erredakzioak eta langileen profilak

Gogora dezagun landu ditugun hedabideen profila: zazpi hedabideetatik hiruk ez dute euskaraz ekoizten (*H07*, *H05*, *H04*); bi hedabidek zertxobait ekoizten dute euskaraz, Euskara Zerbitzuaren bitartez (*H03*, *H06*); hedabide batek informazioaren %20 inguru ekoizten du euskaraz *H01*. Gure ikerketako azken hedabidea elebiduna da *H02*. Horrek, jakina, isla du erredakzioan: nolako hedabidea, halakoa da erredakzioa osatzen duten kazetarien profila ere.

Erabateko gaztelaniazko kazetaritza ekoizten duten hiru hedabideetatik bik (*H04*-k eta *H05*-ek) diotenez, betidanik erredakzio gaztelaniadunak direla onartzen dute, eta horretan gauzak ez direla askorik aldatu: eta azken urteotan plantillak urritu egin direla edo apenas hazi direla diote (kazetari elebidunen kopurua ere ezin hazi, beraz):

---

*No es un requisito imprescindible para entrar a trabajar en [nuestro medio]*<sup>33</sup>

*H05-eko odezkarria*

---

Euren plantilla urrian (4 lagunekoa), bakarrak ulertzen eta hitz egiten du euskaraz (elkarrizketatuak berak), eta beste batek zertxobait ulertzen du. *H04*-ko ordezkariak dioenez, gaztelaniaz egiten dute hedabide barruan, oro har, baina “hay cierta naturalidad”<sup>34</sup>: pertsonen artean, batzuek euskaraz egiten dute eta. Gainera ohartarazi du, behin-behinean sartutako langileak —udako bekadunak-eta—, elebidunak izan gabe baina ulertzen dutela euskara (nahiz eta idatzi ez, edo askotan ezta hitz egin ere). Eta hori garaiak aldatzen ari diren seinale da harentzat. Ez hori bakarrik, “erredaktore zahar batzuek inbertitu dute formazioan, eta gaur euskaraz idazten dute”.

Euskara Zerbitzua baliatzen dute beste bi hedabidek, arestian aipatu dugunez. Oso jende gutxi dute zerbitzu horretan, bai hedabide batean zein bestean: bat edo bi lagun besterik ez, *H03*-n eta *H06*-n, hurrenez hurren. Azken honetako ordezkariak dioenez, “azken bi urteetako apustua” du hedabideak [Euskara Zerbitzua], lehenago erabat gaztelaniaduna baitzen. Eta garaietara moldatzen doazen seinale gisa dio: “Gaur bertan kolaboratzaile berri bat hartu dugu —beste lankidea joan delako—, eta elebiduna izatea hobetsi da”. Eta hedabidean daukan postutik, eta etorkizunari begira, honela gehitzen du:

---

<sup>33</sup> “Gurera lanera sartzeko, euskaraz jakitea ez da ezinbestekoa”

<sup>34</sup> “naturaltasuna bizi da

---

*Si de mi dependiera, aquí no entra nadie que no sepa euskera ya”, de verdad. Porque ya la gente de nuestra generación sabe euskera casi todo el mundo, mejor o peor, y yo creo que es algo que hace falta.<sup>35</sup>*

#### *Ho6-ren ordezkaria*

---

Duela bi urte arte erabat gaztelaniaz funtzionatu duen hedabide horretan, euskara estigmatizatuta/baztertuta ez dagoen zantzuak ere eman ditu: “Hala ere, hemen ere bada kazetari euskaldun-euskaldunik, etxeko euskara duena. Baina ez du euskaraz ikasi. (...) Nik neuk ere euskaraz egiten dut erredakzioan, pare bat lankiderekin. Ez da ohikoa, ez, baina horren bila jo behar dugu. Gizartea ere hori eskatzen ari da”. Horretan bat dator H01-eko ordezkariarekin.

Hedabidearen barruan kazetarien arteko hizkuntza erabileretan aldeak daude, batik bat informazioaren ekoizpenak behartuta, nolabait esan. Gaztelania hutsez ekoizten duten hedabideetan, oso toki gutxi dago kazetari elebidunek euskaraz egiteko: gaztelaniaz ekoizti beharrak lan tresna den hizkuntza ere gaztelania izatea eragiten du; gainera, ‘orain arte’ gaztelaniaz aritzeko izan duten ohitura eta joerak ere pisua du, batez ere jada, berez, euskaraz gaitasun urriagoa badute edo deserosoago sentitzen badira. Arestian aipatu dugu H06-ren kasua.

Euskarazko gaitasun nahikoa duten kazetarien arteko harremana ere kutsatua da hedabidearen ekoizpen hizkuntzagatik, H01-eko ordezkariaren aburuz:

---

*Euskaldunon artean euskaraz hitz egiten dugu, baina lanean gaudenean batzuetan erdarara pasatzen gara. [Erredakzio] bileretan euskaraz egiten dugu. Bilera guztiak/batzarrak euskaraz egiten dira. Funtzionamendua, ofizialki, euskaraz da; gure arteko harreman profesionalak euskaraz dira; baina, lanagatik, egia da erdarara jotzen dugula batzuetan. Gure produktua nagusiki gaztelaraz izateak baldintzatzen du gure arteko harreman profesionala, pertsonala ez; baina profesionala bai. Garen euskaldunak baino erdaldunagoak gara.*

---

Talde honetan multzokatu dugun beste hedabidean H03 ere badira euskaldunak; ez agian, gutzit alfabetatuak edo kazetari gisa aritzeko lain gaituak (“euskara maila ertain edo behekoa dutenak”, dio ordezkariak), baina hedabideen egoera hain larria ez balitz, beste irizpide batzuk ezarriko lituzkete kontratazio berriak egiteko aukerarik izanez gero: “Euskaraz idazten dakiten kazetariak hartuko genituzke, seguruenik”. Bien bitartean, Euskara Zerbitzuaren bitartez funtzionatzen dute, baina etorkizunera begira, “Euskara Zerbitzuak hazi besterik ezin du egin; euskaraz eta gaztelaniaz idatzi dezakeen jendea bilatuko genuke, [lantaldea handitzeko aukera izanez gero]”.

---

<sup>35</sup> “Niregatik balitz ez litzateke sartuko euskaraz ez dakienik; izan ere, gure belaunaldiko [gaur 20-30 urte dituztenak] jendearen artean ia mundu guztiak baitaki euskaraz, eta uste dut beharrezkoa dela.”



Informazioaren bostena inguru euskaraz lantzen duten hedabidean H01 lanean diharduten kazetariak, berriz, gehienak elebidunak dira. Euskaraldiaren oihartzuna nabari da ordezkari honek egindako deskripzioan:

---

*Gurean badira belarriprest batzuk: (...) Besteek euskaraz egin eta haiek gazteleraz erantzun, inkluso euskaraz. Baina ez dira gai euskaraz idazteko. Eta material gehiena gaztelaniaz dute, eta gaztelaniaz egiten dute nagusiki. (...) Geratzen diren erdaldunak adin batetik gorakoak dira, beste hedabide batetik etorritako kazetariak. (...) Gaur kontratazio-politikan erabakita dago, behartuta gaude elebidunak hartzera. Ez daukagu alternatibarik: oraingoekin ezin dugu onartu euskaraz ez jakitea.*

---

Salbuespen bat ekarri du hizpidera, kasu berezi bat eta bakarra: "Pertsona horrek bere kabuz ekin dio euskara ikasteari, konturatu da gurekin lan egiteko behar duela: hemengo giroak bultzatu du". Kontua da hedabide horren enpresak bizi duen egoera konplikatuetatik ezin diotela formazioa eskaini. Ez da borondaterik falta enpresaren aldetik, baina ez dago baliabiderik une honetan.

Adierazpen horietatik segitzen da hedabide gehienbat erdaldun batzuek ez diotela trabarik jartzen kazetariak elebidun izateari euren hedabideetan; are, aukera izanez gero giza baliabideak gehitzeko/berritzeko elebidunen alde egingo luketela, gizartean ere eskaera hori nabaritzen dutelako, nolabait esan.

Elkarrizketatu ditugun hedabide guztiz elebiduneko (H02) ordezkariak diotenez, haien hedabidean, "kazetariak, normalean, bi hizkuntzak dakizkitez. Ia denek. Kazetariak denek. Eta arloburuek ere bai. Bi hizkuntzak ez dakizkitenak aurkezle batzuk dira, espezifikoki albistegi baterako daudelako. Baina bestela, hemen dauden kazetari guztiek bietara egiten dute". Eta kontrataziora begira ere aintzat hartzen da bi hizkuntzak jakitea, bietara aritu behar baitira.

## **Eguneroko jardunerako hizkuntza protokoloa**

Ohiko lanetan, egunerokoan, hedabideek nola jokatzeko duten hizkuntzen erabilera kudeatzeko orduan eta protokolorik edo barne arauen bat baduten jakin nahi izan dugu, irizpide jakinik baduen hedabideak edo kazetariaren baitara utzita dagoen zer hizkuntza erabili iturriekin. Orain arte ikusitakoetan joera batzuk antzeman litezke, baina interesgarria deritzogu xeheago begiratzea gai honi ere.

Apenas araututa dagoen laneko hizkuntza-aukerak nola ezarri: era lasai eta lausoan jokatzeko dute. Naturaltasuna eta praktikotasuna bezala deskribatzen dute irizpide eta arau gabezia. Hedabideek ez dute protokolo formalik eta beraz unean-uneko eta tokian-tokiko baldintzen arabera jokatzeko dute; aurreikuspenik eta sistematizaziorik gabe.

---

*La naturalidad, que yo creo que es difícil, pero creo que es lo más adecuado. Entendiendo que todos los que estamos allí, unos y otros, en un lado o en otro,*

*estamos trabajando y estamos intentando que lo que se cuenta allí llegue al público.*<sup>36</sup>

*Ho4-ren ordezkaria*

---

*Busco practicidad*<sup>37</sup>

---

*Ho5-ren ordezkaria*

---

Arestiko puntuetan esandakotik segitzen da, egunerokoan, gaztelaniaz funtzionatzen dutela hedabideetan, gehienbat gaztelaniaz produzitzen dutelako, salbuespenak salbuespen; informazio iturriek bi elez igortzen diete informazioa normalean, eta gutxitan izaten da arazorik informazioaz jabetzeko: modu batera edo bestera, gaitasun edo baliabide handiagoz edo gutxiagoz, baina informazioa ondo jasotzeko modua egiten dute gure ikerketagai diren hedabide guztiek: bistakoa da hori informazioa gaztelaniaz edo ele bitan jasotzen badute, baina iturriek informazioa euskaraz soilik bidaltzen badute ere moldatzen dira. Izan ere, diotenez, erredakzioetan bada pertsona bat gutxienez euskara ulertzeko gai dena. Gaiak interesik duen hedabidearentzat, hori da kontua azken finean. Xehetu dezagun hedabide desberdinetan nola jokatzaren dute, iturriaren hizkuntzaren arabera.

Lehen kontaktua. Iturriak nola hasten duen harremana, hedabideek badute bakoitzak funtzionatzeko bere era: *H07*-k dio, beti erdaraz erantzuten dutela. Aldiz, *H05*-en eta *H01*-en, kazetariaren irizpidera uzten da uneoro nola jokatu. Halatsu hitz egin du *H04*-ko ordezkariak:

*Nosotros no tenemos ese problema, digamos, o esa necesidad. No existe una norma, digamos. Cada uno por su propio caso, porque, aquí hay gente un poco de todo... Cada uno funciona un poco como considera mejor.*<sup>38</sup>

---

Euskara Zerbitzua duten hedabideek (*H03* eta *H06*) bi hizkuntzen arteko zubilana egin ohi dute. *H02*-n zehatzago jokatzaren dute:

*Kanpotik deitzen badute, deitzen duten hizkuntzan [erantzuten da], eta guk deitzen badugu, euskaraz izaten da normalean lehenengo hitza. Liburuxka bat badago hori guztia jasotzen duena, nahiz eta ez dagoen oso sozializaturik. Estilo liburuan ere badatoz holakoak, arau batzuk, jarraibide batzuk.*

---

<sup>36</sup> "Naturaltasunez jokatzeari onena: han [agerraldi publiko batean] gaudenok, alde batean eta bestean, lanean ari gara eta kontatzen ari dena publikoari helarazteko asmotan dihardugu

<sup>37</sup> "Praktikotasuna bilatzen dut nik"

<sup>38</sup> "Guk ez daukagu arazo hori, alegia, premia hori. Ez dago araurik. Hemendik denetik gaude, eta bakoitzak ondoen irizten dionaren arabera funtzionatzen du".

Lanean. Lehen esan den moduan, komunikatu gehienak euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen dituzte erakundeek, batez ere erakunde publikoek; erredakzioetara gauza gutxi iristen da euskara hutsean. Eta, hedabideen ustean, deialdi bat ulertzeko lain jende badute, testuak zer dioen antzemateko gai dira, nolabait itzuli-edo egiten dira.

---

*Lo que sí que se manda igual es un comunicado más dificultoso, que tenga unas interpretaciones, depende de la persona también, del nivel de euskara que tenga...<sup>39</sup>*

---

Eta ulertzeko gai izanda ere, hedabide horretan Euskara Zerbitzuarekin kontsultatzen dute, zalantzarik edo interpretazio posibleren bat ote dagoen argitzeko.

Prentsaurrekoetan euskara ez menderatzeak dakarren ‘deserosotasuna’ aipatu du hedabideetako ordezkari batek baino gehiagok. Pentsa daitekeenez, egoerari aurre egiteko zailtasun handienak dituztenek adierazi dituzte kexa handienak, hala nola H04-ko ordezkariak:

---

*A ver, esto ha sido cosas muy puntuales, tampoco se puede hacer de esto una generalidad, pero... En alguna rueda de prensa donde las personas que hablan en esa rueda de prensa, exclusivamente, quieren hablar en euskara y ha coincidido que ese día justo hemos mandado a un redactor que no maneja el euskara. Ante eso, el redactor que no maneja el euskara, lógicamente, atiende a la rueda de prensa tal, y, probablemente, cuando acaba la rueda de prensa pide alguna aclaración. Porque, igual, algo has entendido, pero, bueno, alguna aclaración, para... Y ante esto nos hemos encontrado a veces con reacciones airadas. (...) yo creo que también la reacción ante una petición de una persona que está trabajando y que además está ahí para trasladar lo que tú has contado, puede ser otra. Creo. Más que nada, porque eso al final lo único que hace es generar mal ambiente.<sup>40</sup>*

---

Hala ere, ordezkari horrek berorrek onartu du ez dela ohiko gertaera: “Ni ere izan naiz, eta niri ez zait tokatu. Beti ‘naturaltasuna’ aurkitu dut (...) Ez dut aurpegi txarrik ikusi”.

Antzera mintzo zen H05-ekoa:

---

<sup>39</sup> “Baina komunikatu zailxoagoa bada, interpretazio desberdinak izan ditzakeena —dio H03-ko ordezkariak— edo pertsona jakin baten adierazpenak direla, edo euskara maila nolakoa den, orduan itzultza bidaltzen da”.

<sup>40</sup> Gutxitan gertatu da, e, baina inoiz, prentsaurrekoren batean, euskaraz hitz egiten zuten, eta justu egun horretan bidali dugu euskara menderatzen ez zuen kazetaria. Normalean, horrelakoetan, [prentsaurrekoa] amaitzean galderaren bat egin ohi da kazetariak ez duelako ulertu, edo argibideren bat eskatu... Inoiz erantzun zatarren bat jaso izan dugu. (...) Uste dut lanean ari den pertsonak beste erantzun bat merezi duela, zu kontaktzen ari zarena emateko dago eta. Batik bat, horrelakoek giro txarra besterik ez baitu sortzen.

---

*Si yo voy a una rueda de prensa y me está explicando algo en euskara que creo que estoy entendiendo bien, pero no estoy segura y no quiero meter la pata, automáticamente le voy a decir, «perdona, ¿me lo puedes decir en castellano?». Si la respuesta es positiva, genial; si la respuesta es negativa, que también nos ha pasado en determinados momentos, entonces, valoro lo que hago. Valoro. Ya veré. En función de cómo me pille el momento, igual digo «pues, perfecto. No entras». O decido que sí, le comento a un compañero, «oye, y qué ha dicho».<sup>41</sup>*

---

Hedabideek beren boterea nola balia dezaketen erakundeen aurrean ikusteko balio izan du aipu horrek. Hizkuntzaren erabilera erakundearen indargunea eta boterea erakusteko izan daitekeen bezala, hedabideek ere erabil dezakete arrazoi berberengatik: albiste bat ez argitaratzea larria izan baitaiteke erakundeentzat (batik bat xumeentzat).

Oso kontuan hartzekoa da bi hizkuntzetan aritzeak lanean zenbat luzatzea dakarren, eta honela mintzo da H05-eko ordezkari bera erakunde publikoek praktikatzen duten elebitasunaz diharduela:

---

*Normalmente, siempre se empieza en euskara. Reconozco que para nuestro caso al final estás muchas veces duplicando tiempo. Porque es un poco rollo que te lo cuenten en un idioma y luego te lo cuenten en otro, y al final, lo que tendría que durar diez minutos acaba durando veinte. Pero entiendo que tiene que ser así. (...) Prácticamente, no salgo a ruedas de prensa; pero tampoco he oído excesivas quejas por parte de la gente que sale [en los últimos cinco años].<sup>42</sup>*

---

Adierazgarria da hedabide horietako ordezkariak diotena: argi dago deseroso sentitu izan direla, eta erakundeek euskaraz jardutea desabantaila dela eurentzat, baina, aldi berean, ez dute kezarik erakutsi nahi eta garbi diote ez dela ohiko kontua, 'inoiz edo behin' gertatu izan dena baizik, ezta eurei geratua ere zuzenean, 'kazetariren bati' baizik.

Bada beste hedabide bat H07 erabat erdaraz funtzionatzen duena eta zerbitzua ere erdaraz ematen duena, baina kazetari elebidunen bitartez moldatzen dira erakundeek euskaraz egiten dituztenean agerraldiak: "Badugu euskaraz dakien jendea, eta lasai joan gintezke deialdietara haien berri emateko gero".

Euskarazko zerbitzua dagoen hedabideetan, nolabait 'asumitua' dute euskara ere lan tresna dela; esan nahi bai baitakite euskaraz egiten dela komunikazioaren parte bat (edo bi eletan). Horien kasuan, eguneko lana beste era batera antolatzen da. Zerbitzu hauek ez dira guztiz

---

<sup>41</sup> "Prensaurreko batera banoa, euskaraz da eta ulertzen badut, ederto. Baina zalantzak baditut, galdetu egingo dut: 'Gaztelaraz esango didazu?' Erantzuna positiboa bada, primeran. Ez bada —inoiz gertatu izan zaigun bezala—, ikusiko dut zer egin: Nola nagoen, ba, agian pentsatuko dut [gurean] ez zaitugu sartuko' eta kito. Edo agian kideren bati galdetuko diot, 'aizu, zer esan du?'"

<sup>42</sup> "Ia beti euskaraz hasten dira, eta gure denbora bikoiztu egiten da. Hamar minutuko jarduna, azkenean hogeikoa bihurtzen da: lehenik hizkuntza bat, gero bestea; rollo bat da. Baina hala behar du. (...) Neu ez naiz irteten orain, baina kexa gutxi entzun dut azken bost urteetan [euren hedabideko kazetariaren aldetik]."

beregainak, alegia, gaztelaniazkoaren osagarri edo lagungarri dira. Honela dio H06-ko ordezkariak: “Prentsaurreko batera joan aurretik, prentsako [papereko] arduradunarekin hitz egiten dut lehenik”. Baina hedabide horrentzat erakunde garrantzitsu bat —audientzia handiak biltzen dituen— euskaraz hasten bada prentsaurrekoa ematen gai garrantzitsu eta ezusteko bati buruz (adibidez, “Urrutia badoa Athletic-etik”), Euskara Zerbitzuko kazetari horren presentzia eskatuko dute, berehalakotasunari ere erantzun beharra dagoelako gaur egun: “[lehen, paperarekin ez zen hori gertatzen, baina orain] hamar minutuz ari bada euskaraz, eta zuk ez baduzu hitzik jarri webgunean, ridikulua egiten ari zara... Guk alertak eta urgenteak ere bidaltzen ditugu eta”.

Aldiz, bada Euskara Zerbitzuarekin modu horizontalagoan lan egiten duen hedabiderik ere H03:

---

*El Servicio de Euskara trabaja, más o menos, codo con codo con los periodistas de redacción (...) Llegamos por la mañana y tenemos un correo general al que llegan los comunicados de prensa. (...) Las notas suelen llegar en su mayoría en euskara y castellano. Si tú trabajas el de castellano ese tema, lo trabajas a tú manera y él lo trabaja a su manera en el de euskara. La información es común, porque en el día a día es lo que pasa.*<sup>43</sup>

---

H01-eko ordezkariak profesionaltasunarekin lotu du hizkuntzaren hautua:

---

*Euskara kontuan hartzen ez duten prentsa kabinetek, komunikazio taldeek eta abarrek arazo handiak dauzkate: gurekin, behintzat. (...) Instituzionalki, euskara bihurtu da minimo bat, maila handi batean, eta euskaraz gai ez izateak erakusten du gabezia bat eta arazo organizatibo bat. Ez da soilik kontu ideologiko bat edo euskararekiko maitasuna edo... uste dut gero eta gehiago nabarmentzen ari dela ez direla beraien lana egiten ari.*

---

Kasu honetan, hedabidearen ikuspuntutik baino gehiago erakundearen erantzukizunari lotua azaldu du kezka ordezkari honek; izan ere, euren hedabidean ez dute arazorik euskarazko iturriari erantzuteko.

Ekoizteko orduan. Orain arte esandakoak euskara ulertzeari dagokio. Beste gauza bat da hedabideak euskaraz ekoizteko gauza izatea. Eta horretan aldeak daude hedabide batzuen eta besteen artean.

Badira bi hedabide (H04 eta H05), ia erabat gaztelaniaz ekoizten dutenak beren hedabideetatik, baina, noiz edo noiz, gaiaren nolakoari jarraituz euskaraz ere ematen dute berriren bat:

---

<sup>43</sup> “Euskara Zerbitzuak parez pare lan egiten du erredakzioarekin. (...) Goizean sartu eta posta komun batera iristen dira komunikatuak. Horiek ele bietan izan ohi dira: nik gazteleraz eta Euskara Zerbitzukoak euskaraz lantzen ditugu, bakoitzak geure erara. Informazioa bat da, eguneko gertaerez osatua baita.”

---

*Si estamos hablando de un tema cuyo motivo, digamos, lo que lo mueve es el euskara, intentamos que el lector al día siguiente se encuentre un texto en euskara y también en castellano. Porque tienes que tener en cuenta que nos dirigimos a la sociedad que nos dirigimos, y, hoy por hoy, no es una sociedad que se maneje exclusivamente en euskara; y por lo tanto, nuestro público es un público que maneja el castellano, en general. Pero sí que intentamos, en la medida de nuestras humildes posibilidades, darle presencia al euskara, por lo menos en ese tipo de temas.<sup>44</sup>*

#### *Ho4-ren ordezkaria*

---

Tarteka beste gai batzuk ere lantzen dituzte euskaraz, "protagonistak euskaraz dakielako eta hobeto baliatzen duelako, edo dena delakoagatik". Baina alderantziz ere jokatu izan dute, hau da, printzipioz euskarari lotutako gaia izanik (euskaraz ematekoa izan, "demagun Araba Euskaraz") gazteleraz argitaratu izana, une horretan ez zegoelako euskaraz zekien kazetaririk.

Nolanahi ere den euskara erabiltzea ez dago gaiari, pertsonaiari edo arrazoi jakin bati lotua beti, eta neurri batzuen barruan noiz edo noiz pertsona bat mugitzea erabaki izan da, hau da, ahalegin berezi bat egitea. "Izan ere, gaien lanketa lotuago dago ez hainbeste hizkuntzari, baizik eta kazetari bakoitza lantzen ari den gaiari, bere espezializazioari" H04.

Egunerokoa, eta komunikazioa ele bitan bada, ez da erraza asmatzea zein den lanerako modurik egokiena:

---

*Entiendo que tiene que ser así, y es así, e insisto, tiene que ser así: que aquí hay dos lenguas co-oficiales, con lo cual el mensaje de las instituciones en la rueda de prensa de turno tiene que ser bilingüe. A partir de ahí, pues, sinceramente no sé muy bien cómo se puede hacer para que sea rueda de prensa bilingüe, que contente a todo el mundo, que no sea excesivamente larga, porque el que decide dar algunos trozos de la rueda de prensa en castellano y otros en euskara sin repetirse, a lo mejor al periodista de turno que hubiera preferido el corte que ha dado en euskara que lo hubiera dado en castellano... Entonces, es un poco lío. (...) Esos formalismos obligan a que todo esté en los dos idiomas para que nadie se sienta dolido y nadie pueda decir nada y nadie pueda sacarnos los colores con esto.<sup>45</sup>*

---

<sup>44</sup> "Euskara bada gaia edo mugitzen duena, biharamunean irakurleak euskaraz jaso dezan saiatzen gara. Eta gaztelaniaz ere bai: kontuan izan gure gizartean ez dela euskaraz egiten soilik; oro har, gaztelaniaz hobeto menderatzen duen gizartea da gurea. Baina saiatzen gara gure baliabide apalen barnean ahal dugun presentzia eskaintzen euskarari, gai horietan behintzat."

<sup>45</sup> "Nik ulertzen dut hala izan behar duela [bi hizkuntza koofizial daude eta instituzioen mezuak elebitan eman behar dira]. Ez dakit nola egin daitekeen mundu guztia pozik edukitzeko: zati bat euskaraz eta bestea

### *H05-en ordezkaria*

Euskarazko Zerbitzua duten hedabideek euskaraz egiten dute eskoizpenaren parte bat, ez gaztelaniaz egiten den bezainbeste, eta ez da gaztelaniaz argitaratzen denaren itzulpena ere. Nahiko barneratuta dute lanketa propioa egiten dela; esate baterako, erdaraz egindako prentsaurrekoetan euskarazko korteak eskatzen dituzte; edo prentsa ohar elebidunetarik euskarazko atala erabiltzen dute zerbitzukoek, euskaraz berridazteko albisteak. Zerbitzu horretan dihardutenak ere kazetariak dira, ez itzultzaileak: "Erdaraz ematen ditugun beste albiste batzuen antzekoak izango dira, batzuetan, egun berean jazotako gertaerei buruz ari baikara, baina irizpide propioarekin lantzen dira albiste horiek ere; ez dira itzulpen hutsa" H03.

Gure ikerketako hedabideetako batek dioskunez, inon idatzita ez badago ere, hedabide barnean sinetsita daude ezin dutela ehuneko hogeitik behera baino gutxiago ekoitzi euskaraz H01:

*Ez du zertan egunero horrela izan behar, baina batezbestekoa, nolabait, ehuneko hogeitik ezin da jaitsi, eta gaietan eta sekzioetan konpentsatua egon behar du. Hori ere ez dugu beti lortzen: joera handiagoa daukagu, adibidez, Kulturaren euskaraz egitera, Munduan egitera baino. Baina idatzita dagoen bakarra da, adibidez, egunero sail bat euskaraz ireki behar dela.*

Oro har, hedabide horretan, erabaki idatzirik ez badute ere, "hedabidearentzat positiboak diren praktikak errepikatzen" saiatzen dira. Ordezkaririk horrek gehitu duenez, oso praktika ona litzateke hizkuntzen arteko erreferentziak egitea<sup>46</sup>, "jendeak jakin dezan gai bat beste hizkuntza batean ere irakur dezakeela".

Euskaraz jarduteko inolako arazorik ez duen beste hedabideko ordezkariak H02-k dio:

*Liburuxka bat badago hori guztia jasotzen duena; ez dago oso sozializaturik. Estilo liburuan ere badatoz holakoak, arau batzuk, jarraibide batzuk. Ez dago protokolorik, baina badakigu nola egin behar dugun: prentsaurrekoa erdaraz bada, guk euskaraz galdetu behar dugu derrigorrez. (...) Prentsaurrekoan ikusten dugu ea norbaitek euskaraz hitz egiten duen, eta saiatzen gara euskarazko hizlari hori lortzen, eta galderak egiten dizkiogu, edo prentsaurrekoan bertan edo aparte elkarriketa eginez.*

Ikusi denarekin, esan daiteke "ustez" erdara hutsean jarduten diren hedabideek ahaleginak egiten dituztela euskarazko komunikazioren jarduerara hurbiltzeko: hedabidean bertan dituzten kazetari elebidunen bitartez iritsiz, euskarazko prentsaurrekoetan galderak eginez

*erdaraz egitea? Baina, agian, kazetari batek nahiko du euskaraz eman dion kortea erdaraz izatea... Liotxoa da. (...) Formalismo horiekin, denen bakea bilatzen da askotan: inor ez dadin mindua sentitu, inork ez dezan ezer esan."*

<sup>46</sup> Adibidez, papererako euskaraz idazten bada, digitalerako gazteleraz eman. Eta alderantziz.

edo informazioa erdaraz helarazteko eskatuz, noizbehinka euskaraz ekoitiz, Euskara Zerbitzuak sortuz eta langile elebidun bakan batzuk gehituz lantaldera... Eta batez ere, jarreran antzematen zaie euskarazko komunikazioarekiko ikuspegi ulergarri eta positiboa.

### 6.2.5 Hizkuntzen arteko harremanak eta baliabideak: idatzizko elebitasuna, itzulpenak, interpretazioa..)

Hedabideetako ordezkarien esanetan, badirudi gaur egun euskararen presentzia jendaurreko komunikazioan gaztelaniazkoaren parekoa edo ia parekoa dela. Erdaraz lan egitera ohituta dauden hedabideentzat arazo, traba edo, gutxienez, deserosotasuna da. Lanari aurre egiteko, egunerokoan kudeatu beharrekoa dute bi hizkuntzen arteko haremana. Elkarrizketetan hainbat baliabide aipatu dira:

#### Itzulpen zerbitzuak

Eguneroko martxan, ez da bideragarria, "pentsaezina da itzulpen zerbitzuak eskatzea"; hala diote H04-k eta H07-k.

---

*En el día a día, eso, olvídate. En el día a día nunca recurrimos a un servicio de traducción.<sup>47</sup>*

---

Batetik, zerbitzu garestia da eta hedabide txikietan ez dago aurrekonturik horretarako. Bestetik, denbora galtzen da: euskara hutsean dagoen informazioa itzultzera bidali eta gero erredakzioan lantzea baino askoz arinagoa da kazetari elebidunak jartzea euskaraz jasotzen den informazio hori gazteleraz lantzen. Gaur egun, gainera, badirudi, hedabide gehienetan dutela horrela aritzeko bidea.

Euskara Zerbitzua duten hedabideek ere beste lanketa mota bat egiten dute, baina itzulpenera jo gabe, eta badirudi emaitza onak lortzen dituztela: "Ni pozik nago bide honekin", dio H03-eko ordezkariak.

#### Interpretazio zerbitzuak

Prensaurrekoetan bat-bateko interpretazio zerbitzuak dira egokienak, bi hizkuntzak menderatzen ez dituztenentzat. Zerbitzu hori eskaintzen duen bakarrak erakunde publiko handiak dira, hedabideek aipatu dutenez. Zerbitzu horren oso aldeko dira, besteak beste, erakundeak berak ordaintzen duelako; ez hedabideak. Gainerakoan, pensaezina da kostu hori hedabideen pentzuan lagatzea (ohiko itzulpen zerbitzua baino askoz garestiagoa, nahiz eta emaitza bat-batean jasotzen den).

---

<sup>47</sup> "Egunerokoan, hori ahaztu; ez dugu sekula jo itzulpen zerbitzu batera".



## Material osagarria gaztelera/euskaraz

Erakundeek, hedabideetara jotzerako, gaia eta materialak prestatuak dituzte. Hedabide guztiek aitortu dutenez, prentsa oharrak bi hizkuntzetan iristen zaizkie. Normalean, gainera, bi hizkuntzetan batera, ez bada azken orduan sortutako gertakariren bat edo.

Ez da soilik idatzizko formatuetan prestatzen informazioa —laburpenak, txostenak, prentsa-oharrak...—; gaur, gero eta sarriago, ikus-entzunezko formatuan landutako materiala ere helarazten zaie hedabideei: —argazkiak, bideo laburrak, ahots korteak—. Euskaraz prestatzen bada material ‘garrantzitsuena’, haren osagarri direnak zabaltzen dira gaztelera: laburpenak, ahots korteak, nahiz bideoak... Batzuetan, dena bikoizkuta ere bidaltzen edo eskura jartzen zaie hedabideei.

Bada kontuan hartu beharreko beste puntu bat hemen, H02-ko ordezkarietako batek planteatu duena: “Ez daukatenak euskaraz komunikatzeko ohiturarik, igual prestatzen dute esaldi bat ez dena oso esanguratsua, eta, jakina, zuk albistea prestatzean, ez duzu sartuko; bai, euskaraz egin du, baina ez du ezer esan. Eduki aldetik ez dauka garrantziarik”. Arazo hau euskaraz ere informatzen duten hedabideei sortzen zaie gehienbat; ez hainbeste erdarazko hedabideei.

## Material sakonagoa

Ondo adierazgarria izan da H06-ko ordezkariaren ikuspuntua. Gorago esan dugu hedabide honetan Euskara Zerbitzua baliatzen dutela euskarazko informazioa emateko, baina itzuli gabe. Bere lana egiteko, ordezkari honek oso baliagarritzat ditu iturriek bidalitako euskarazko prentsa oharrak, eta oro har euskaraz lantzen diren materialak:

---

*Yo muchas veces utilizo las notas de prensa. Siempre las reescribimos, le damos un toque; pero hay notas de prensa que están super bien escritas y tampoco hay que volverse muy loco.<sup>48</sup>*

---

Informazioa gehiago lantzeko ere eskatu die (ez geratzea paragrafo bat emanda), hartara albistean sakontzeko aukera eskaintzen baitzaie hedabideei (Euskara Zerbitzukoari, kasu honetan):

---

*Pero sí que es verdad que muchas veces te mandan una nota de prensa que es como un parrafito, y en realidad, si ellos se lo curraran un poco más.<sup>49</sup>*

---

Orobat, bereizi ditu testu eskasagoak eta hobeak: “Euskal mundukoek edo euskararekin lotutako albistek hobeto idatziak izan ohi dira. Hortik aldentzen direnak, mugatuagoak daude: ‘(...)tik bidalitako informazioarekin gertatu izan zait’”, dio. H06-ko ordezkari honek,

---

<sup>48</sup> “Nik askotan prentsa-oharrak erabiltzen ditut. Beti berridazten ditugu, ikutu bat ematen diogu; baina oso ongi idatzitako prentsa-oharrak daude eta ez da gehiegi erotu behar.”

<sup>49</sup> “Baita laburtxo bat euskaraz eta informazio sakona gaztelaniaz bidalita ere. Baina askotan oso laburrak dira, sakontasunik gabeak”.

gehitu du, gainera, euskarazko produkzioa nahiko 'exijentea' dela, euskara menderatzen dutenek gaitasun handia baitute; horrek dakarren alderdi ezkorragoa ere aipatu du:

---

*Batzuetan jendea uzkur sentitzen da huts egiteren bat egiteko beldurrez.*

---

H01-eko ordezkariak ere gogoratu du hizkuntzaren gaitasun maila:

---

*Instituzionalki mezu bat zabaldu nahi duenak gizartean, euskaraz ere egin behar du. (...) Hizkuntza estandarizatu egin da eta nik uste dut minimoak betetzen direla. Ez da bakarrik euskaraz gehiago egiten dela, (...) , baizik eta hizkuntzen maila [euskara eta gaztelania] ere hobetu egin dela.*

---

Euskarazko gaitasunari buruz ere mintzo da H07-ko ordezkaria:

---

*Muchos saben euskara y son capaces de entender y luego escribir en castellano o contar en una radio en castellano la rueda de prensa; pero muy pocos son capaces de escribir bien en euskara. Salvo, pues yo qué sé, los de Egunkaria y cuatro más.<sup>50</sup>*

---

Hortik segitzen da, erakunde euskarazko produkzioa oso lagungarri zaiela hedabideei eta hedabideen ekosistema euskalduntzeko bidean baliagarria dela. Horregatik, besteak beste, pentsatu behar da erakundeek euskaraz ekoizten jarraitu behar dutela; zenbat eta gehiago, orduan eta eragingarriago, eta hedabide gehiagok landuz gero informazioa euskaraz, are eta gehiago zabalduko da gizartean ere.

## **Ingelesez edo frantsesez aritzeko**

---

*Aquí hemos tenido que hacer entrevistas del Festival de cine en francés, en inglés, en... Claro. Hombre, no todos los redactores saben todos los idiomas. Si lo hacen en euskara, mandarían unos redactores, si es inglés, a otros.<sup>51</sup>*

---

*Ho7-ren ordezkaria*

---

Ingelesez, frantsesez elkarrizketak egiteko gai diren kazetariak nahiko erraz bilatzen dira erredakzioetan, beharbada euskaraz egiteko baino gehiago. Dena den, erakunde batek atzerriko norbait ekartzen duenean prentsaren aurrera, normalean itzultzailea/interpretea ere jartzen du: oso ohikoa da esan osteko itzulpenak ikustea kirolarien aurkezpenetan, esaterako.

---

<sup>50</sup> "Askok dakite euskaraz eta ondo ulertzen dute gero gaztelaniaz idazteko edo irrati batean gaztelaniaz kontatzeko prentsaurrekoa. Baina oso gutxi dira euskaraz ondo idazten dutenak. Salbu eta, ez dakit ba, Egunkariakoak eta beste lau."

<sup>51</sup> "Kazetari guztiek ez dakizkete hizkuntza guztiak; euskaraz dakien bat behar badut norabait bidaltzeko, hura bidaltzen dut; eta berdin, ingelesez edo frantsesez behar izanez gero."

## 6.2.6 "Euskarazko gaiak" eta besteak

### Euskara bera eta ingurukoak dira gaia

Oraindik ere "Euskarazko gaiak" bereizteko joera antzematen zaie hedabide gehienei. Gaur egun, estereotipo eta topiko zaharkitua dirudi horrek informazioaz hitz egitean, are gehiago urteak igaro direnean euskarazko hedabide jeneralistak ditugunetik. Hala ere, elkar ulertzeko balio digu. Izen horren azpian sartzen dira Korrika, Kilometroak, Araba Euskaraz, Ibilaldia, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, euskara bera, Euskaltzaindia...

Erdal hedabidetzat izan ditugun horiei ere horrelako gaiak euskaraz ekoizteko ahalegina aitortu behar zaie. Badakite gai horien hartzaile nagusiak euskaldun elebidunak direla eta beren hedabidetik target horri ere erantzun behar diotela. Kontziente badira gero eta presenteago dagoela euskara gizartean, logikoa da gai horiez ere informatzea. Eta informazio hori, kasu askotan, euskaraz landu eta argitaratzen da.

### Kulturako gaiak

Erdaraz diharduten hedabideek Kultura gaiak ere aukeratu ohi dituzte euskaraz emateko.

Litekeena da Kultura saila esaten denean, parte handi bat Euskal Kulturako gaiak jorratzea: Bertsolaritza, Euskadi Sariak, Musika talde handien kontzertuak (Berri Txarrak...) eta abar. Hedabide hauetan, informazio horien hartzaileak nagusiki euskaldun elebidunak izan ohi dira; hartzaile horietariko asko beste hedabide batzuetara jotzen dute euskarazko kultur gaiekiko informazio-gosea asetzerara, baina elkarrizketatu ditugun hedabideek ere gero eta sarriago eskaintzen dituzte euskal kultura arlokoak 'soilik' izan diren berri batzuk.

### Protagonista euskalduna izatea

Hedabideetan elkarrizketatu direnen iritzira, normala da euskaraz erosoago komunikatzen diren pertsonen euskaraz elkarrizketatzea. Izan liteke euskaraz bizi diren pertsonak izanik, erraztasun handiagoa izatea, berez, euskaraz aritzeko; izan liteke euren jakintza arloetatik trebatuago egotea euskaraz, edo elkarrizketa euskaraz ematea eskatu dutelako eta abar. Kontua da hedabideek onartzen dutela horrelako kasuetan euskaraz aritzea, eta prest daudela pausoa emateko. Eman izan dute jada.

### Hard news-ak ere euskaraz

Aurreko puntuetan deskribatutako kasu edo gaiez harago, hedabide elebidun hauek oraingoz bete gabe duten erronka da hard news-ak ere euskaraz lantzea, hau da, nazioarteko gaiak, politikakoak eta ekonomiak. Hartara, edozein motatako albisteak landuko lituzkete euskaraz, ez soilik aipatu berri ditugun arlokoak. Pauso handia da gelditzen zaien hori.

## 6.2.7 Etorkizuneko ikuspegiak

Hedabideek etorkizunerako duten ikuspegiari erreparatzen badiogu, zera antzeman da: oro har esanda, gaiari buruz duten diskurtsoa eta jardun praktikoa ez doaz bat. Hedabideen eguneroko praktika ez da diskurtso mailan adierazten duten bezain 'oparoa'. Hala ere, badira aldeak euren artean, beheko eskeman irudikatu dugunez: euskarazko ekoizpenaren ardatzean, hedabide bakoitzaren kokapenak erakusten du batzuk indar handiagoz tiratzen dutela elebitasun orekaturantz, eta beste batzuk oraindik galga handia dutela espainolezko elebakartsunetik mugitzeko.

Iritzi uzkurrenetik hasita (irudian ezker aldetik begiratuta), hona H04-ko ordezkariak nola ikusten duen etorkizuna:

---

*Yo creo que en todo esto tiene mucho que ver el público y como la propia sociedad va cambiando y cómo va cambiando la presencia del euskara y de su uso cotidiano, su uso lector también en la propia sociedad. Porque, al final, nosotros, aparte de todo, esto es una empresa y nuestro negocio es vender periódicos (...) Porque al final nuestro papel, como el de cualquier empresa, está dentro de una sociedad y por lo tanto, ahí nos manejamos.<sup>52</sup>*

---

Oso iritzi antzekoa du H05-ekoak, baina H04-ren aldean aurreraxeago sumatzen zaio:

---

*Yo entiendo que lo lógico es que el tema lingüístico y el tema del uso y de la presencia del euskara vaya a más. Y si nos atenemos a los modelos en los que están inscritas las nuevas generaciones en los coles, el modelo A ya, aquí, no existe. Todo tiende a euskaldunizarse, en los coles, digo, para las nuevas generaciones, que al final son las futuras audiencias de la radio. Con lo cual entiendo que cada vez irá a más. Me parece una evolución lógica, de hecho.<sup>53</sup>*

---

Diskurtso mailan, ez du zalantza handirik H03-ko ordezkariak:

---

*(...) a través de la página web se nota que hay más gente que lee en euskera, que se informa en euskera. (...) el responsable del servicio sí que nota que le llegan más informaciones; al principio era un desierto aquello. Llegaba de vez en*

---

<sup>52</sup> "Honetan zerikusi handia du publikoak eta gizartea nola doan aldatuz, eta nola aldatuz doan euskararen presentzia eta eguneroko erabilera bera, baita irakurtzeko ohituretan ere. Zeren, beste ezeren gainetik, hau enpresa bat da, eta gure negozioa egunkariak saltzea da. (...) Gure papera, beste edozein enpresarena bezala, gizarte baten barruan dago eta hortxe bizi gara."

<sup>53</sup> "Hizkuntzaren gaia eta euskararen erabilerak eta presentziak aurrera egitea da logikoena. Ikastetxeetan haurrak matrikulatuta dauden ereduei erreparatzen badiegu, hemen jada A eredurik ez dago. Eskoletako joera dena euskalduntzea da; hala izango da belaunaldi berrientzat gure hartzaileak izango direnentzat. Eta garapen logikoa iruditzen zait, egia esan."

*cuando una nota en euskera y ahora casi todas son euskera-castellano. (...) eso ha ido evolucionando. (...) el sector privado cada vez más. Sí que lo notamos.*<sup>54</sup>

Eta are tinkoago mintzo da H06-ko ordezkaria:

*Tampoco dejaba entrar aquí a nadie sin inglés. Creo que es algo... el euskara, el inglés, el castellano yo creo que aquí deberían de ser imprescindibles. Pero sí que es cierto que en un momento dado si hay que hacer una entrevista en inglés a una persona probablemente elijan a una persona que controle el inglés mejor que nadie. (...) Pero [un compañero](...) ha estado unos cuantos años en Bruselas viviendo y el otro día hablando con él me dice «Yo ni francés, ni inglés... yo no sabía nada. Me fui allí y me he buscado la vida».*<sup>55</sup>


H01-eko ordezkariak iritzi muturrekoena azaldu du:

*Ez da bakarrik gaizki ikusita dagoela euskaraz ez egitea, baizik eta euskaraz gaizki egiteak ere ez du prentsa onik. (...) Gaur egun euskaraz egiten ez duenak barkamena eskatzen du, eta lehenago ez zeukan horren kontzientziarik. Hori aldaketa nabarmen bat da; behintzat zuzentasun politikoaren barruan. Gero, zuzentasun politikoak beste arazo batzuk ekartzen ditu: ez baldin bada ekintzekin lotzen, beste errealitate bat ezkuta dezake. Baina uste dut aldaketa, orokorrean, handia eta positiboa izan dela.*

Kontu honi loturik ez zaio galdetu H02-ri eta haren iritzirik ez da jaso, baina H01-engandik oso gertu dago: praktikan, behinik behin, ikerketa honetarako elkarrizketatutako zazpi hedabideen artetik bera baita euskara gehien darabilena eguneroko produkzioan.

<sup>54</sup> "(...) webgunearen bidez nabaritzen da euskaraz irakurtzen duen eta informatzen den jende gehiago dagoela. (...) -k, zerbitzuaren arduradunak, bai nabaritzen duela informazio gehiago heltzen zaizkiola; hasieran hori desertua zen. Noizean behin heltzen zen euskarazko ohar bat eta orain ia denak dira euskara-gaztelania. (...) hori eraldatzen joan da (...) eta sektore pribatua gero eta gehiago. Bai nabaritzen dugula."

<sup>55</sup> "niregatik balitz hemen ez litzateke sartuko ingelesik ez dakienik; euskara, ingelesa eta gaztelania ezinbestekoak izan behar lukete. Une zehatz batean norbaiti elkarrizketa bat ingelesez egin behar bazaio, ziurrenik ingelesez beste inork baino hobeto egiten duena aukeratuko dute. (...) Gure lankide batek Bruselan eman ditu hainbat urte, eta harekin hizketan ari nintzela lehenago egunean esaten zidan: 'nik ez nekien ez frantsesik, ez ingelesik, ezer ez. Hara joan eta bizimodua bilatu behar izan nuen'."



## HEDABIDEEN ESANDAKOA LABURTZE ALDERA

- **Garaiak aldatu dira:** teknologiaren garapenaren ondorioz, errutina eta lanbide berriak garatu dira hedabideetan. Alde batetik lana arindu da, bestetik zama handiagoa dute kazetariak: informazioa formatu gehiagotara moldatu behar dute. Kazetaritza astindu duen krisiaren ondorio da, neurri handi batean. Baliabideak asko urritu dira, eta horrek eragina du egunerokoan, baita hizkuntzen kudeaketan ere.
- Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, komunikazio publikoan **euskara gehiago** sumatzen da (erakunde publikoak buruan, eta beste arlo batzuetara hedatzen). Erakunde publikoek —handiek batez ere— erabateko elebitasuna praktikatzeko dute (Euskal Autonomia Erkidegoaz ari gara), eta horrek bi eragin ditu: bata da euskararen ikusgarritasuna sustatzen duela; bestea, euskara gaztelaniaren mailan prestigiatzen duela. Hedabide tradizionalak erdaldun hutsak izan direnak, euskararen balioa, premia, gizarte aldarrikapena edo dena delakoa ikusten dute, eta eurek ere ahalegin bat egin behar dutela sumatzen dute, gizarteko eskakizunei —edo bestela esanda, euren targetei— erantzun badiete.
- Erredakzioetako **lan hizkuntza nagusia gaztelania** da, oraindik ere. Alde handia dago gaztelaniaz egiten den lanarekin eta euskarari eskainitako baliabideen artean. Bi hizkuntzen arteko jauziak gainditzeko zer estrategia erabili ez dago garbi: hedabide bakoitzak bere neurrian probatzen dihardu bide bat edo beste. Hedabideek ez dute baliabiderik, oraindik, itzulpen zerbitzuen edo gisakoen bitartez lantzeko informazioa euskaraz. Baina nolabaiteko aldaketan sartuak dirudite, eta pauso batzuk ematen dihardute euskaraz ere argitaratzeko.
- **Erredakzioetan ez dago jende berririk**, baina behin-behinean sartzen direnak **euskaraz ikasiak** dira gehienetan. Egoera berria da hau hedabideetan. Hezkuntza- eta hizkuntza-politikek euskaldundu dituen gazteak hasi dira erredakzioetara igarotzen, eta horiek dira askotan euskarazko lanaz arduratzen direnak edo gaztelaniarekin zubi lana egiten dutenak. **Hedabideetan, giza baliabideetako arduradunak hasi dira kontuan hartzen eta baloratzen profesional berrien euskara gaitasuna (ere).**
- Praktikotasunaren eta naturaltasunaren izenean, gaztelaniaren ia erabateko erabilera izan da lege orain arte, baina diskurtso mailan bada ere, euskarari bidea ireki behar zaiola onartzen dute hedabideetako ordezkariak. Gizartean antzematen den aldaketa, xumea izan arren, badu eragina hedabideen jardunean. Une honetan, hedabideek ezin diote bizkarra eman euskarari; beren tokitik mugitzera derrigortuta sentitzen dira.
- **Hedabideetan ez dago protokolo garbirik hizkuntzen erabilerarako:** kazetariaren edo harremanen arabera da, norbaitek estilo liburu- edo aipatu duen arren. Erakundeetan, oster, landuago dago alor hori.

Beraz, aldaketa betean daude hedabideak. Eta gizarteko aldaketetara egokitu nahi badute, besteak beste, hizkuntzaren gaiari heldu beharko diote: gizarteak euskara gehiago daki eta funtzionalki gehiago erabiltzen eta eskatzen du, eta hedabideek zail dute horri kontra

egiteko. Eman dituzten pausoak —batzuentzat, txikiak; eurentzat ahalegin handiak— ere balioetsi egin behar dira. Bere batean kontuan hartzen badira, norabide partekatuan aurrerantz egitera ere bultza daitezkeela pentsa daiteke.



## 7 ONDORIOAK

Lan honen sarreran, *Jendaurrean Erabili* proiektuaren muinean zeuden egitekoak gogoratu ditugu. Hasteko, Praktika Komunitatea sortu zen, eta partaide diren erakundeek elkarrengandik ikasteko daramaten dinamikari jarraitzen diote. Ikerketa lerroari dagokionez, gogoratu dezagun, bigarren ekite ildoan sartuta gaude: sarreran bertan esan dugunez, hedabideak interpelatzea eta erakundeekin lankide bihurtzea zen ekite ildo honen muina (“Hedabideei interpelatzea eta haien lankidetzatza lortzea”). Hortik komunikazio eremua euskalduntzeko urratsak egiten hasteko: *Jendaurrean Erabili* proiektuak hori baitu sakoneko helburua.

Erakundeen eta hedabideen hautu, gaitasun, baliabide eta praktikek elkar baldintzaten dute komunikazioan. Komunikazio hizkuntzari dagokionez ere hala da; funtsean, botere harremanez ari gara: elkar behar dute erakundeek eta hedabideek, baina, era berean, desadostasun edo interes kontrajarriak agertzen direnean, batak besteari inposa diezazkioke bere irizpideak.

Fairclough-ek (1989) dioenez, hizkuntzaren eta gizartearen artean dagoen lotura ez da kanpotik zedarritua; aldiz, barnetik eta dialektikoki eratutako harremana da. Horrek esan nahi du, besteak beste, hizkuntzarekin lotutako fenomenoak bereziak direla, gertatzen diren gizarteak eragindakoak direla eta, aldi berean, eragina sortzen dutela gizartearen. Gurera ekarrita esango dugu: hedabideen eta erakundeen komunikazio jarduerak gizarte honen testuinguru eta ezaugarrien baitakoak direla eta euren eguneroko jarduerak aldaketak eragin ditzaketela gizartearen; aldaketa horietarik batzuk hizkuntza praktiketan gerta daitezkeela pentsatzea ez da ameskeria.

Deskribatu dugun panorama honetan, hedabideekin harremanak dituzten erakundeek ez dute bidea zela aurkitzen: badira hainbat galga nabarmen, harremana, lana, trukea —agian baita elkarri ulertzea ere— oztopatzen dutenak. Batzuk oso nabarmenak dira:

- Gizartearen beraren egoera soziolinguistikoa: den bezalakoxea da. Besterik nahi izanda ere, erakundeek onartu behar dute erabileraz eta gaitasunez euskara gaztelaniaren azpitik dagoela, are gehiago lan munduaren arloari begiratzen bazaio. Hedabideen jarduna horren isla da, nolabait. Izan ere, hedabideen egiteko nagusia euren publikoei informazioa helaraztea da. Eta EAEko eta Nafarroako hedabideen xede taldeak erdaldunak dira hedabideen kontsumoari dagokionez.
- Kazetaritzak munduan pairatu duen krisi larriak gogor astindu ditu hedabide guztiak, baita hemengoak ere —oraindik ez dute gainditu—, eta inbertsio gero eta urriagoak egiten dira: lantalde askotan ez dago kazetari berririk hartzeko aukerarik; premia ikusita ere, ezin dituzte kazetari elebidunak hartu, euskaraz apustu sendoak egiteko.
- Prekariotasunean lan egiteak leku gutxi uzten die kazetariei formaziorako, harremanak pertsonalki behar bezala lantzeko, espezializaziorako... Eta aldiz, lan zama gero eta handiagoak pairatu behar dituzte erredakzioetan daudenek.

Guztiarekin ere, aukera interesgarriak antzematen dira bidegurutze honetan, erakunde-hedabide harremanen norabidea aldatzeko. Gertutik begiak altxa eta ikuspegia zabaldua, pentsa liteke inflexio puntu edo egokiera onean gaudela hainbat pauso aurrera egiteko. Ez alferrik nabari dute eragileok (eta hedabideek ere) pixkanaka-pixkanaka aldatuz doala gizartea (euskarak presentzia handiagoa duela, lurralde batzuetan beste batzuetan baino gehiago, baina, oro har, denean). Hainbat alderditan pausatu dute soa:

- Erakunde publikoek egindako (egiten diharduten) bidea: hedabide handi eta txikiak kontziente dira eta erabat onartua dute euskal erakunde publikoek hartu duten bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko bidea. Ikusi dugu, gizartearen aldaketari ez ezik, erakundeek eurek hartutako erabakia ere badela, eta hedabide handi zein txikiak horren jakinaren gainean egiten dute beren lana. Galgak galga, oztopoak oztopo.

Erakunde publiko handiek hartu dute euskararen lema, eta komunikazio ofizial guztietan ez dira deskuidatzen: euskara hor dago, gaztelaniaren ondoan, parez pare. Gizarteak eta hedabideek eurek ere espero duen bezala, ele bitan argitaratzen dituzte komunikazio publiko guztiak. Erakunde horiek baliabide handiak dituzte eta hedabideen eskueran jartzen dute guztia, nahi duten hizkuntzan jasotzeko informazioa.

- Enpresa pribatuetan ere gero eta ahalegin handiagoak nabari dira: garai batetik hona, jada ez dira soilik enpresa jakin batzuk euskaraz komunikatzen dutenak: edozein arlotako enpresa pribatu askok egin dute euskaraz komunikatzeko hautua (baita sindikatu, elkarte, kolektibo, gizarte mugimenduek ere). Euskaraz komunikatzeko hautua egin duten erakunde batzuek beren hizkuntza jarduera baldintzatua sentitzen dute hedabide erdaldun gehienen aurrean. Erakunde eta enpresok hedabide erdaldunei erraztasunak emateko prest daude ia beti (itzulpenak, txosten laburtuak, korteak, prentsa ohar elebidunak, eta abar), eta horrekin —ahalegin eta esfortzua eginda, jakina— hedabideek landu dezakete eguneroko informazioa. Baina euskaraz aritzen diren erakundeak gero eta gehiago direla ikusteak, hedabideei ere zer pentsa ematen die. Lanaren eguneroko antolamendurako, beharrezkoa bihurtzen ari da euskaraz dakiten pertsonak egotea erredakzioetan.
- Erakundeetako eledun asko —batzuentzat oraindik gutxi izan arren— ere euskaraz trebatuak eta ongi gaituak dira. Horiek askotan egiten dituzte prentsaren aurreko agerraldiak. Kazetari elebidunek euskaraz nahiz gaztelaniaz landu dezakete hark emandako informazioa. Euskaraz gaituta ez dagoen kazetaria denboraren eta egoeraren menpeko bihurtzen da. Agerraldi batean, eledunari zalantzak galdetzera behartua ikus dezake bere burua euskarazko gaitasunik ez duen kazetariak, edo beharbada gaztelaniazko korte bat eskatu behar dio —saioa amaitu ondoren—, edo beste laguntza motaren bat.
- Euskaraldiaren terminotan agertu dira figura berriak erdal hedabideetan: kazetari 'belarriprestak'. Horiek eta euskarazko gaitasuna duten kazetari berriak —gazteak, eskolan eta unibertsitateko urteetan euskaraz ikasi dutenak— dira egoera berri honi aurrea hartzen diotenak erredakzioetan; betiko kazetariak erdaraz egin baitute

beren bizimodu profesionala, eta nahiz eta batzuetan euskaldun zaharrak izan, ez dira gai euskaraz maila jasoan idazteko —kazetari bati eskatzen zaion mailan—. Bat edo bestek, hala ere, bere kabuz hartu du alfabetatzeko erabakia, eta hori ere laudagarria eta kontuan hartzekoa da.

Kazetari gazte horietako batzuk bekadun dira hedabideetan, edo Euskara Zerbitzuetako kazetariak dira.

- Garai batean baino jarrera irekiagoak erakusten dituzte hedabideek euskararekiko, baita PK-ko erakundeek ere kazetari bat galdezka doakienean edo gaztelaniazko materiala eskatzen badiete, ez dutelako euskara ulertzen. Oro har, irekiagoak daude erakundeak ere eta zerbitzu hobek eskaintzen dizkiete hedabideei. Horretan asko lagundu dute teknologia berriek ere.

## 7.1 AHALDUNTZEA ETA ARITZEA

Erakundeak eta hedabideak, euskarak komunikazio publikoan toki gehiago izango duen eszenatoki bateranzko norabidean jarrita daude. Norabide horretan urratsak zein tamainakoak eta zein erritmotan eman da kontua. Batzuen abiapuntua besteena baino aurrerago kokatzen da. Eta batzuek malda handiagoa dute aurretik, besteek baino.

Kontuan hartzeko modukoa da, Gipuzkoa Berdinago ekimena. Azken batean, praktika eredugarri eta aurrekarizat har daiteke *Jendaurrean Erabili* proiekturako ere. Komunikazio publikoan euskararen erabilera handitzeko konpromisoa publikoki aurkeztu zuten adierazpen batean Foru Aldundiak eta 18 erakunde esanguratsuk. Orduetik adierazpeneko edukiak gauzatzeko lanean dihardute, bakoitzak bere baldintza eta ahalmenen arabera. Gipuzkoa euskara gehien zabaldua den herrialdea da, gehien erabiltzen dena eta hiztun kopuru gaitu handiena duena. Horrek asko laguntzen du hedabideen ekosisteman euskara zabaltzeko ere. Gipuzkoan ikasitakoak beste lurraldeetara hedatzeko moduko esperientziak izan daitezke, dudarik gabe. Beharbada, toki eta egoera bakoitzera doitu beharko dira jarduerak, baina norabidea markatzeko oso baliagarriak izango dira. Nolanahi ere den, lurralde, hedabide eta kasu bakoitzak bere bidea osatu behar du, eta hori ekinaren ekinaz egingo da.

Ekin ezean, nekez bilatuko da aurrera egiteko bidea. Gauzak nola diren ikusita, PK-ko erakundeek aldiko ale bat jarri behar dute euskarazko komunikazioan. Egiten duten guztia ez dute beharbada bat-batean aitortua sentituko, agian ez dute nahi edo espero besteko oihartzunik izango. Egia esan, hala izan da orain arte. Erdal hedabideek euskarazko komunikazioranzko lehen urratsak ematen ari dira. Eta urrats horiek emateaz gain, esan dute: “hala behar du”. Garai politikoa beste bat da, eta seguruenik horrek ere laguntzen du, hizkuntzarekin lotutako gaien inguruan giro lasaia baitago gizartean, oro har.

Erakundeek euskaraz aritzea dagokie, beraz. Zenbat eta gehiago jardun, orduan eta eragin handiagoa izango delako gizartean, hedabideen sisteman. Jarrera hori hartzeko, erakundeak ahalduak sentitu behar da, euskarazko komunikazioan nor dela jakin behar du: erakunde txikia izanda, ekarpen apalagoa egingo du; handia bada eta baliabide asko baditu,

ikusgarriagoa izango da eta eredugarria ere bilaka daiteke beste erakundeentzat, euskaldun elebidunentzat zein elebakarrentzat. Elkarren babesean jardunda aurkituko dute indarra eta norabidea. Ahalduntzea egiten ari direna sinestea da.

## **8 AURRERA BEGIRA**

PK-ko erakundeekin hitz egin eta hedabideak elkarrizketatu ostean, guztiekin partekatuko da egindako lana.

Hortik aurrera, komunikazioaren bi aldeok elkarrengana hurbiltzeko modua nola gauzatu behar den pentsatu beharko da: hizketarako eta elkar ezagutzeko zoru komuna ezarri, elkarren premiak ezagutu eta laguntzeko borondatea eskainiz batzuen eta besteen egitekoari errenta handiagoa ateratzeko, bakoitza bere arloan eta bere lanean baina denak eroso sentitzeko. XXI. mendeko komunikazio eremua euskalduntzeko, gizartean euskaraz gehiago jarduteko.

## 9 BIBLIOGRAFIA

Aced, Cristina (2013): Relaciones públicas 2.0. Cómo gestionar la comunicación corporativa en el entorno digital. Bartzelona: UOC.

CIES (2016). «Estudio de Audiencia de Medios de la Comunidad Autónoma Vasca» 3a oleada.

CIES (2016). «Estudio de Audiencia de Medios de la Comunidad Foral de Navarra» 3a oleada.

CIES (2019). «Estudio de Audiencia de Medios de la Comunidad Autónoma Vasca» 1a oleada.

CIES (2019). «Estudio de Audiencia de Medios de la Comunidad Foral de Navarra» 1a oleada.

AIMC (2016) Estudio General de Medios.

Euskararen Adierazle Sistema (EAS) [Hemendik hartua:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/euskararen-adierazle-sistema-eas/weB01-a2lingu/eu/>]

Euskararen Aholku Batzordea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2016): Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraunkortasuna edo "Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen". Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. [Hemendik hartua:

[https://www.euskadi.eus/weB01-](https://www.euskadi.eus/weB01-a2inguru/es/contenidos/libro/l_051907_0001_0001/es_def/index.shtml)

[a2inguru/es/contenidos/libro/l\\_051907\\_0001\\_0001/es\\_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/weB01-a2inguru/es/contenidos/libro/l_051907_0001_0001/es_def/index.shtml)]

Eusko Jaurlaritzak (2015): Euskarazko Hedabideak. Txostena.

Fairclough, Norman (1989): Language and Power. Edinburgo: Longman Group.

Juaristi, Patxi (2003): Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak. Bilbo: UPV/EHU.

Quesada Pérez, Montse (2014): "Estrategias de gestión de la comunicación en las relaciones interpersonales" In: Túniz López, Miguel eta Costa-Sánchez Carmen (ed) Comunicación corporativa. Claves y escenarios. Bartzelona: UOC.

## 10 ERANSKINAK

### I.ERANSKINA: EZTABAIDA TALDEAK EGITEKO GIDA

Erakundeetako arduradunekin bi solasaldi antolatu ditugu. Talde bakoitzean 8 pertsonak hartuko duzue parte.

#### Taldeak egiteko irizpideak:

- -Ordez kariaren lan-arloa : komunikazio arduradun vs. euskara arduradun
- -Erakundearen izaera : euskalgintza vs. bestelakoa
- -Generoa: gizonezkoa / emakumezkoa

#### Aurkezpenak eta dinamika

“Gogoratu gaur landuko den gaia, oso zabal esanda, hauxe dela: hedabideekin dituzuen harremanak.

Gaiak planteatu aurretik, zera eskatu nahi dizuet: Azaldu nor zaren, zein erakundetan diharduzun lanean eta zein den zure postua/eginkizuna.

Gaurko solasaldiari ekingo diogu. Izenak berak dioen dioen moduan, komeni da zuen arteko solasaldia izatea; nola eta saioaren gidariak ahalik eta gutxien parte hartzeko eran. Batik bat gaiak planteatzea izango da gidariaren lana, eta, behar ez duen lekutik joanez gero solasa, gaira bideratzea.

Solaskideek banan-banan hitz egitea komeni da; elkar zapaldu gabe eta, ahal dela, elkarri hitza jan gabe. Iritzi eta mezu guztiak dira garrantzitsuak, orokorrak eta xehetasunak. Esan beharrik gabe doa, denekiko errespetua izango dugula, eta ikerketaren helburuetarako baliagarria izango den arren, anonimotasuna gordeko dela iritzia jasotzean”.

#### Gaiak:

1. Erakundearen komunikaziorako premiak:
  - Arlotik
  - Gaia
  - Maiztasuna
2. Harremanak egiteko moduak:
  - Pertsonak
  - Bitartekoak
  - Maiztasunak...

1. Prozedimentuak (errutinak)
  - Pertsonak
  - Arloak
  - Euskarriak
  - Maiztasunak...
  - Interakzio pertsonalak / bereziak
2. Hizkuntza
  - Barnean
  - Hedabideekin harremanean:
  - Nola zuzendu
    - Zer erantzun jasotzen da
    - (Zergatik? Horrela jarraitzeko asmoa? Zer aldatu?...)
    - Jarrerak eta espektatibak (noizbait aldaketarik? zer ahulezia? Zer esan liteke?...)
3. Hedabideengan eragiteko gaitasuna.

(ez gaiagatik soilik —korrika, kilometroak...—, baizik eta nola hartzen zaituzte —zein da zuen pertzepzioa? Hizkuntzaren jarreran/erabileran aldaketarik eragin daiteke?...
4. Informazioaren difusioa
  - nola egiten da
  - zer espero du erakundeak hedabideengandik
  - gaiaren arabera aldatu egiten da?
  - geroko harremanetan, zer eragin du horrek?
5. Euskara ez den beste hizkuntzarekin lanak eta jarrerak
6. Itzulpena da bidea?